

# Euskal Kulturgintzaren izaeraz eta zereginez

**Eduardo Apodaka**  
EHUko irakaslea

Zer da jendearen ustez “euskal kultura”? Zein da euskal kulturaren irudikapena? Bi izan omen dira “euskal kultura” zehazteko erabilitako irizpide nagusiak: bertakotasuna eta euskara. Baina zein da irudikapen honen jatorria eta euskal nortasunarekin duen zerikusia? Kulturgintzak eginkizun politikoa eta identitarioa izan du modernitatean, baina eginkizun hori zalantzan jarri da gaur egun. Zein izango da euskal kulturgintzaren eginkizuna aurrerantzean? Zelan lehiatuko da nortasun-kontsumoaren mundu globalizatuan? Eta zer eginkizun beteko du euskal herritarren nortasun-kapitala eratze-lanean? Galdera horiei erantzun biribila eman barik, gogoetari ateak zabalik uzteko saioa da artikulua hau.

How represents and accounts people the Basque culture? Which are the social representations of Basque culture? Two are the principal arguments of people's explanation about the Basque culture: the Basque language and the autochthony. But, which is the genesis of this representation? And what is the relationship between culture and identity in the Basque Country? The culture production, the culture in general, has been a very important political and identity function in the modern era, however, for some authors the culture has lost the value which it possessed. The nature of the culture production has been modified in contemporary society. Which is the function and the performance of the Basque culture production in the High Modernity? How will the Basque culture production in the globalized world of identity consumption compete? The aim of this article is to present some questions and reflections about the Basque culture production in the High Modernity.

«Para poder convertirse en música urbana, la música negra tuvo que entrar en la lucha de clases, politizarse, participar en ese juego sucio del negocio, tuvo que disfrazarse, tuvo que negarse (aparentemente). Pero logró llegar a ser la música que hoy, en diferentes tonos y estilos, bailan todos los brasileños».  
(Martín-Barbero, 1991).

## **1. Jendeak zer ulertzen duen “euskal kulturaz”.** **Euskal kulturaren irudikapenak**

Euskal Herrian bizi den jendeak ez du euskal kulturaz iritzi bateraturik ezta adosturik ere; alderantziz, hainbat irudikapen aurki dezakegu, batzuetan elkarren oso ezberdinak. Jendearen ustez zer da euskal kultura?

Euskal kulturgintzan aritzen direnek jakin behar dute berek erabiltzen duten euskal kulturaren irudia eta jendearena bat datozen, osagarriak diren edo elkarren aurkakoak diren. Horrez gain, kulturgintzak (eta kultura-ikeruntzak) bere jarduera berriro definitu behar du, kultura bera goitik behera aldatzen ari omen den garai honetan.

Egin diren ikerketak birpasatuz, euskara dela euskal kulturaren ardatza esan genezake. Azken urteotako historian, euskararen alde egindako lanak bideratu eta izanarazi du euskal kultura.

Gauza bat “euskal kulturari” dagokion ala ez erabakitzeko euskararekin duen lotura aztertzen da, eta euskararekin lotura zuzenik izan ezean lurraldearekin: ez lurralde fisikoarekin (paisaia edo herriak) nortasun-lurraldearekin baizik, lurralde politikoarekin (Euskal Herria edo hitz sinpleagoaz: “hemengoa”).

Honez gain, badakigu bi izaten direla euskal kulturaren irudikapena baldintzatzen duten eragileak: ideologia politikoa eta euskara jakitea. Besterik ere badira: jaioterria, adina, familia, gizarte-sareak... baina horiek, azken finean, ez dira euskal kulturaren irudikapenaren eragile zuzenak, horiek ideologiari eta euskara jakiteari daragiotte.

Nolabait, euskal abertzaletasunak eta euskara jakiteak euskal kultura eta nortasuna euskararen baitan ainguratzeraz garmatzaten bitartean, eragile horietatik urrundu ahala, euskal kulturaren eta nortasunaren euskara pisua galtzen doa eta bestelako ezaugarriak agertzen dira: bertakotasuna, folklorea, ikurrak...

Adibide moduan, orain dela urte batzuk egindako ikerketa hauek aipa ditzaket: “Identidad y cultura en el País Vasco. Estudio cuantitativo y cualitativo” eta “Identificación etnosocial en la C.A.V. y en la C.A.N.” (González, 1995; García, 1995).

Euskararen ezagutzak euskal kulturarekin eta identifikazio nazionalarekin zer harreman duen neurtzen da ikerketa horietan; ondorioak honako hauek dira:

el conocimiento del euskara es una variable con un peso importante en la creación de la identidad, capaz de crear diferencias significativas también, tanto en conocimiento, identificación y participación en las culturas española y vasca (...) ¿qué es la cultura vasca? ya que parece que para los dos grupos no es lo mismo.

Gutxi asko, euskaldunek euskararekin lotzen dute euskal kultura, erdaldunek, berriz, folkloreakin, musikarekin, kirolarekin...

Bestalde, identifikazioa dela-eta, ikusi *Euskal Herriko soziolinguistikazko Inkesta 1996. Euskararen jarraipena II*. delakoan honako datuok: erdaldunetan ehuneko 11k hartzen du bere burua euskal herritartzat soilik, euskaldunetan ehuneko 71k; horietan, gainera, euskara erdara baino hobeto dakitenen artean gora doa bere burua euskal herritartzat soilik hartzen dutenen kopurua (erdal elebidunetatik %62k, elebidun orekatuetatik %74k eta euskal elebidunetan %81ek). Euskarak markatzen du, bertakoa izateak baino gehiago, identifikazio nazionala<sup>1</sup> (Barandiaran, 2002).

*Euskararen jarraipena II* (1996) inkestaren arabera, benetako euskal herritarra-Euskal Herrikoa-euskalduna (*vasco, basque? ciudadano vasco, citoyen basque?*) izateko, ehun euskalduneko 73k, 81ek, 79k (EAEn, Nafarroan, Ipar Euskal Herrian, hurrenez hurren) euskara ezinbestekotzat jotzen dute. Erdaldunetan, berriz, EAEn soilik 66k eta Nafarroan 51k du uste berbera. Euskal herritarra izateko ez dago derrigortasunik, borondatea nahikoa da, euskal herritarra izatea aukerakoa da, nonbait, nork bere burua irudikatzeko aukerako bide bat.

Euskarari eta euskal nortasunari dagokienez, egoera anbiguo baten aurrean gara: alde batetik, euskarak ofizialtasun politikoa lortu du Euskal Herriko alderdi batzuetan, inoiz izan duen sendotze-ahalegin handiena egin du; bestalde, ordea, euskaldunek, hiriguneetan batez ere, ez dute euskaraz bizitzerik, ez osoki, eta hori da diskurtso “normalizatzailearen” aldarrikapen nagusia. Egoera “normalduan”, gaurko gizartearen despolitizazioa eta pribatizazioa lagun, hizkuntzaren afera gatzaketatik urrundu beharko litzateke. Baina euskadunek egoeraz duten ulerkera bestelakoa da. “Euskarazko unibertsoan” egiten den egoeraren definizioak ez du galdu dramatismo osoa eta ez du alde batera utzi irudikapen-gauzapen tentsio militantea.

Esaten ari naizen hau biribiltzeko Atxagaren pasarte hau aldatu dut hona:

---

1. Barandiaranek gazteen iritzia jasotzen dituen lan honetan beste datu hauek ematen dizkigu: 43,2k uste dute euskaldun izateko beharrezkoa den baldintza “euskaldun sentitzea” dela, Euskal Herrian jaioa izatea 28,2k, lehendabiziko aukeran; Euskal Herrian bizitzea 28,5ek eta euskaraz hitz egitea 23,9k, bigarrenean. Eta hezkuntza-ereduen arabera sailkatuta: A ereduari aukeratu den lehenengo baldintza “borondatea” da (60,4), bigarrena “berton jaio izana” (54,1) eta hirugarrena berton bizitzea (46,1); D ereduari, aldiz, lehenengoa borondatea bada ere (63,0), bigarrena “euskaraz jakitea” (61,8) eta hirugarrena “abertzalea izatea” (26,3) dira. Interesgarria da, bestalde, honako hau: «D ereduko gazteentzat, Euskara euskaldunetara lotzen da, euskaraz hitz egiten duten euskaldunetara... hizkuntza herri zutabea da... A ereduak, joera nagusi moduan, beste norabide bat hartzen du. Euskara euskaldunetara lotzen da (euskaldun Euskal Herrian bizi direnen esanahi zentzuan hartuta) baina ez da euskaldun egiten duena» (444. or).

la relación con el euskera (sea ésta estrecha o no lo sea tanto) es lo más característico de nuestro comportamiento y de nuestro modo de vivir, algo por lo que sí merece la pena esforzarse, algo que no podemos perder sin perdernos, al menos un poco, a nosotros mismos. Hay quien, alegando la unidad del imperio o de las grandes patrias, abomina de esa diferencia nuestra; y hay asimismo algunos que, invocando el espíritu de la ilustración o del progreso, preferirían que no insistiéramos en defender lo que a su entender, es sólo un vestigio del pasado; y tampoco faltan los que lisa y llanamente desprecian nuestra actitud, supuestos universalistas o supuestos liberales (...). Sin embargo, tenemos derecho a vivir como nos gusta y como hemos elegido; o mejor, como nos va gustando y como vamos eligiendo (Atxaga, 1995).

Atxagaren «como vamos eligiendo» horren ulerkera psikosoziala egin behar dugu: nortasun esanguratsu hau eraikitzeke gizarte-jarduna (*hautatuz joate* hori) esparru sinboliko eta soziopolitiko jakin batean kokatuta dago. Esparru horretako diskurtso objektibatuak eta erakundeek mugatzen dute *hautatuz joatea*, talde arteko eta pertsona arteko dinamikek mugak estuagotzen dituzte.

Euskara nortasunaren muin afektiboa izaki, Xabaldorren “Gauden euskaldun!” haren antzera, boluntarismoa da euskalduntasunaren euskarria.

### **1.1. Euskal kulturaren definizioa zehaztuz: zer da “euskal” hori?**

Gaur egun ezin da esan euskal kultura bereizirik dagoenik, euskaldunek erdara behar dute (legez behar ere) eta; hala ere, euskal kultura izan bada. Izan ere, kultura guztietan bezala, bere burua kultura horren partaide jotzen dutenek egikeran eta egin ahala euskal kultura sortzen dute.

Herriak, nazioak, kulturak eta abar asmakariak dira, ez dira inoiz berez izaten, gizakiok izanarazten ditugu. Eta garai batean euskal kultura, gainerako kultura guztiak legez, entitate homogeen gisa asmatu izan da. Gaur, aldiz, kulturaz hitz egin beharrean kulturaren osagaiez eta kulturaren ekintzez hitz egitea onesten da. Euskal kulturaz barik, euskal kulturaren osagaiez eta euskal kulturaren ekintzez, esaterako.

Kulturaren afera nortasunari loturik doa, kultura-osagaiak aukerakoak direnean eta nortasuna sail irekia denean, bereizgarri eta positiboak diren osagaiak aukeratu ohi dira nortasunaren definizioetan. Erdara ezinbesteko eta arrunta denez, ez da bereizgarria, ez da nortasun-osagai nabaria (batzuen ustez bai, UAkoen ustez, kasu). Normala da, beraz, euskaldun elebidunen kasuan euskara nabaria izatea eta nabaria den kultura- eta nortasun-osagai hori lehenestea. Garai batean bereizgarri hori bizitzarako oztopo edo enbarazutat jotzen bazen ere, gaur, abertzaleek eta euskaltzaleek eragindako diskurtso-aldakuntzari esker, positibotzat jotzen da.

Baina bereizgarritasun hori ez da beti euskararen ezaugarria izan. Euskaldunak inoiz euskaraz bizi izan ziren eta euskara, erdararekikoan salbu, ez zen nortasun-osagai nabaria. Gaur osagai huts bihurtu da askotan. Sinbolo dugu, komunikazio-ekintzen segida izan beharrean. Hori dela eta, euskararekin edonolako lotura duena izan daiteke euskalduna.

Hala ere, euskaldunek beraiek egiten dituzten azalpenetan euskalduna euskara duena da, hau da, euskaraz mintzo dena da. Ez da hori definizio bakarra,

baina bai euskal intelligentsiak hobesten duena. Hiztegi, entziklopedia eta estilo-liburuetakoa definizioetan baieztatu daitezke *euskalduna* (euskara-duena) eta *euskal herritarra* (bertokoa) bereizteko joera<sup>2</sup>.

Adostasuna bide dago gai honetan, sustrai sakoneko adostasuna, izan ere, definiziozintzari zer jan eman dion etimologoen lanak ere euskalduntasunaren jatorria hizkuntza dela eta “euskal herritartasunaren” aurrekaria dela diosku<sup>3</sup>.

Aburuak aburu, hizkuntza-komunitatea eta nazio-komunitatea bi errealitate dira, ez bat. Horregatik bi erabilera ditu *euskaldun* hitzak: batean euskara norberaren ondasun kulturala omen da (euskal hiztuna) eta bestean euskara komunitate baten giltzarria omen da (Euskal Herria).

Nortasuna definitzean gertatzen den bezalaxe, oro har, jendeak ez du euskal kultura euskararen eremura mugatzen. Zabalagoa da: kirola, gastronomia eta dantzak lekuko. Hala ere, euskararen erreferentzia, lotura sinbolikoa tartean izaten da gehienetan. Euskararen nagusitasuna aldarrikatu da euskal norgintzan, eta lan eskerga egin da “euskal kulturaren” eremuaren ardatz izan dadin (eta ez soilik “sinbolo” egituratzaile moduan).

Honaino esandakoa izan liteke euskal kulturaren nolabaiteko argazki subjektiboa. Dena den, balizko irudikapen horren sorrera aztertu beharko genuke.

Neurri handi batean, ikusi dugunak bat egiten du euskal kulturaz (eta nortasunaz) egin, azaldu eta nagusitu diren diskurtsoekin, azken finean berorien emaitza da eta. Ez soilik, ez osoki, bestelako eragileak ere izan baitira.

Hori hurrengoan aztertuko dut. Euskal “nortasun- eta kultura-ekintzaileek” plazaratutako diskurtsoan egindako definizioak (euskal kultura zer den, euskalduna izatea zer den eta abar) ez dira guztiz gauzatu nahi zen modura<sup>4</sup>.

Diskurtsoak errealitatea mugatzen duela esan ohi da, horren bitartez eraikitzen ditugula gure errealitateak. Hala da, bai, baina ez modu mekaniko itxi batean, ez

---

2. Egunkaria, *Estilo Liburua*, (1992): «Nola itzuliko genuke ‘vascos/basques’? ‘euskal herritarrak’= Euskal Herriko biztanleak, ‘euskaldunak’= euskaraz mintzo direnak. Hizkuntzaren tradizioan, eta herri-oroimenean, ‘euskalduna’ euskaraz mintzo dena da». EITB, *Albistegiatarako Esku-liburua*, (1992): «“Euskal”, Euskara hitza bera da baina hitz konposatuetan erabiltzen dena. Adibidez: Euskal Herria (Euskararen Herria). Euskalduna (euskara duena). Azken aldion ordea, agian besterik ezean, zabaldu egin dugu bere esanahia vascoren baliokide gisa erabiliz...» Elhuyar & Elkar, *Euskal Hiztegi Modernoa*, (1994): «“euskal herritar. Euskal herriko biztanlea.” “euskalduna. 1. euskaraz dakiena, euskaraz mintzatzen dena. 2. (hed.) Euskal Herriko biztanlea.” “euskotar. Euskal herritarra; Euskal Herriari dagokiona. Euskadi da euskotarren aberria»». Berdin hiztegi eta entziklopedia guztietan.

3. Agirieta izenen zaharberria: “Heuskalduna”, “heuskara”, “basko” (Etxepare, 1545), “heuskara”, “heuskalduna” eta “Heuskal Herria”, “Pays des Basques” (Leizarraga, 1571), “enusquera” (Garibay, 1571), “uscara” (Elizabide, 1735), “euzkotar”, “euzkadi” (Arana, 1897), “euskalduntasuna” (1880) “euskaldungoa” (1965) (datak Sarasolaren hiztegian jasoak).

4. Diskurtso osoa ez dut deskribatuko; nire artikuluetan (2000a, 2000b) kontsulta daitezke. Laburbilduta, tesi nagusia honako hau zen: euskal kultura eta nortasuna Euskal Herriari buruz erdaraz garatutako diskurtso baten arabera birformulatu zen modernitatean. Foruen galerak, estatu-nazioak, merkatuak, industrializazioak eta abarrek piztu omen zuten “elkargoaren tradizioa” sortzeko abagunea, geroago abertzaletasunaren diskurtsoaz “politizatuko” zen elkargoa. Horretan definitu zen euskaltasuna eta oraindik ere definizio horiek irudikatzen dugu geure nortasun hau: herria eta hizkuntza ardatz gisa hartuta.

gizartean agertzen eta plazaratzen diren beste diskurtsoekin eta beste errealitateekin lehian aritu barik.

Euskal kulturari buruzko diskurtso nagusi horrek hainbat baliabide ematen dio jendeari euskalduntasunaz hitz egiteko, kontu emateko eta argudiatzeko. Baina bere hegemonia edo nagusitasuna ez da erabatekoa izan. Agian diskurtso-mailan bai, hau da, jendeak definizio eta baliabide diskurtsibo horiek erabiltzen ditu bere irudikapenetan eta euskal kulturaz eta nortasunaz kontu ematean, baina bere eguneroko bizimoduan ez du gauzatzen diskurtsoan ezarritako eredia. Oztopoak ditu gauzatzeko, egikeran diskurtsoari hitzez hitz jarraitzeko.

Anbiguetate batean bizi gara. Eta anbiguetate hori areagotzen denean gaztazka-iturri izan daiteke. Baina modernitate “erreflexibo” honetan (Beck, Giddens & Lasch, 1997), nortasun eta kultura guztiak anbiguetatean bizi direla onartu beharra dago: etengabe tentsioan izateko, izaten irauteko, nahasten eta hibridatzen has-teko eta, batez ere, kultura eta nortasun hegemonikoari (zein den, diren, esan beharrik ez dago) aurre egiteko edo, besterik ez bada ere, egokitze.

Ez dakit hau kontsolamendu ona den. Baina anbiguetate eta kontradikzioetan bizitzen ohitu behar gara, ohitu diskurtsoen koherentziak eta adiera bakartasunak bizitzan behin eta berriro zelan egiten duten kale ikusten, malguak izaten ohitu eta ikasi, diskurtsoaren zurrunak jan ez gaitzan. Jendeak, egia esan, badu jakitatea eta sena nortasun- eta kultura-kontradikzioetatik ere etekina ateratzeko.

## 2. Kultura: zeren kultura eta zertarako kultura

Kultura definitzeko *kultura* hitzaren jatorria gogorarazi nahi nuke: landatzea, hazkuntza, lantzea, zaintza... Eta *-gintza* atzizkiak esan ohi duguna. Kulturaren ideia metafora batean oinarritzen da: berezko garapenaren kontrola. Eta metaforatik eginetara igaro zen aspaldi. Hitz batez, kultura “garapenaren kontrola” izan da (Williams, 1958; Eagleton, 2001).

Kultura	Zerena	Nork	Zertarako	Zelan
Tradizio- -munduan: kultura “osotasuna”, kosmobisioa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Natura.</li> <li>Jendea.</li> </ul>	Eguneroko bizimoduan, jendeak.	Izandakoari eusteko (gogoetarik ez).	Bizimodu arrunta egitaratzen duten egiturak (ekandua, azturak) bizi-araziz.
Modernitatean: • Nazio-kultura partikularra • Zibilizazioaren kultura unibertsala.	Gizartea: • Nazioa. • Gizabanakoa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Estatu-aparatuek</li> <li>Gizarte-kla-seek (alderdi politikoei)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erreformatu, aurreratzeko.</li> <li>Gizarte-aldakuntzarako.</li> <li>Gizarte osoa kontrolatzeko.</li> </ul>	Erakundeen egitarauak: eskola, lege-kodeak...
Modernitate ostean: • Ideokulturak. • Logika asko. • Hibridazioa eta meztizajea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontsumoa (merkatua).</li> <li>Harremanak, nortasunak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Mundu-korporazioek.</li> <li>Gizarte-mugimenduek.</li> <li>Erakundeek.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Etekinak, “mundu eroserleria” lortzeko.</li> <li>Nortasunaren gestio autonomoa lortzeko...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Merkatuaren logika liberalaz, globalizazioa</li> <li>Gizarte-eragintzaz.</li> </ul>

Natura menperatzea izango zen “kultura” lehendabiziko aldian eta ahalegin horretatik bizimoduak eta jendearen azturak, ekanduak eta erakundeak azaleratuko ziren. Ingurumenaren kontrola sinboloen bidez (mito edo kontaera eta erritualen bidez) lortuko zen; mundu sinboliko horiek dira kultura tradizionalak. Kultura horiek antropologiaren ikergaia izan dira eta, oro har, egitura sinbolikoen multzo globalak ondo osaturik eta esparru erlijiosoari lotuak izan omen dira.

Bigarren aldian, berriz, gogoz kontrolatu behar zena gizartea bera zen. Gizartea menperatu egin behar zen. Hori estatuen garapenarekin etorriko zen, erlijiotik urrundu ahala, baina baita ere industria garatu ahala. Izan ere, aldakuntza izan zen bigarren aldi horretako xedea: gizartea garatu egin behar zen eta garapen hori menderatu, kontrolatu egin behar zen. Aldi honetan giza jardueraren esparru nagusiak politikoa, soziala eta ekonomikoak izan ziren. Garai berean, garapen horren zehaztapen-maila norbanakoaren inguruan ezarri zen. Gizarte modernoa gizartea egituratuz bezainbeste norbanakoa heziz edo haziz sortu da. Kultura, beraz, gizar-teari dagokiona izan daiteke: nazio-kultura, normalean zaharra izan nahiko lukeena, asmatutako “tradizio kulturala”; eta zibilizazioa edo norberaren garapen jasoa berrikuntzari lotua.

Hirugarrenean, merkatua da kontrolatu edo menperatu behar dena. Hemen, giza jardueraren esparru nagusia “fluxuen esparrua” da: merkatugaien fluxuak, informazioen fluxuak. Kulturaren merkatugaiak, erosgaiak edo produktuak (beraue-tako bat “erosleria” bera da) sortzea da helburua (Jameson, 1984).

Honen aurrean bere burua zaindu edota “hezi” (zentzu zabalean: bere burua- ren jabe izan) nahi duen jendearen erantzuna ezaguna da: nortasun-borrokak edo politikak (gizarte-mugimendu berriak, ingurumenaren aldekoak, sexu-askapenerako mugimendua eta abar...). Hala ere, ezaugarri komuna aurkitu ahal dugu aro honetan: kultura norberaren edo taldeen adierazpideak dira, ez dira “izanak” edo esentziak, ezta “osotasun” bateko multzo banaezinak. Beraz, nork bere gustura aukeratu (eta erosi), nahasi eta erabili ostean bota dezake. Kultura, alde batetik kontsumoa da eta, bestetik, adierazpide partikularra, bizitzeko estiloa (biak batera: nork bere burua adierazteko kontsumoa edo bizimodua)<sup>5</sup>.

Hiru “logika kultural” horiek gaur egun ere nahasian garatzen dira. Ez dira etorri bata bestearen segidan, baizik eta bata bestearen gainean, ondoan, barruan... gertatzen dira. Elkarren barruan daude. Guk aurki eta erabil ditzakegu: batzuetan era tradizionalan biziko gara (“modu konsuetudinarioa”) bestetan oso modernoak izango gara, noizbait postmodernoak... Geuk zehaztu beharrean, gehienetan inguruak eta uneak zehaztuko dute zelan jokatu dugun.

Euskararen kasuan, eta oro har euskal kulturarenean, oso modernoak izateko joera dugu. Nire ustez zergatik den horrela azalduko dut. Baina lehenago euskal kultura aurreko eskema horretan kokatuko dut.

---

5. Lehenengo aroko kultura gizarte baten osotasunari zegokion moduan, aro edo garai honetan edozein giza talderi dagokioke. Edozein talde, erakunde edo gizarte esparruk berezko “izatea”, berezko “izaera” garatu ahal du, horren adierazpidea da “ideokultura” edo talde-kultura.

## 2.1. Euskal kultura, zeren kultura? Zeren hazkuntza, zer-nolako zergintza, zer landu, zer zaindu?

1. Bizimodua edo garai tradizioaletan euskaldunen kultura bizimodua bera zen (antropologiak eta etnologiak ikertu eta “irudikatu” duten “kultura” bizimoduen, jardueren, esaeren eta sineskeren bildumak ziren. Denboratik at, historiarik gabe, bere horretan irauten zuen herri-gogoa).

2. Garai edo kontestu modernoetan, berriz, euskal kultura ez zen jendearen bizimodua (ez zen ez garai, ez espazio modernoko euskaldunen bizimodua, ezta euskal herritarrena ere). Euskal kultura tradizio horien bilduma zen: euskal tradizioa. Garai eta kontestu hauetan sortu zen kulturaren erabilera politikoa eta erabilera “diskurtsibo-identitarioa”: “garena ez gara”, alienatuta gaude, bestelakotzen ari gara, geure burua galduz goaz. Horrelako giroan, euskal kulturaren eginkizuna euskaldunak sortzea zen (euskalduntasunaz jakitun diren euskal aber-tzaleak sortzea eta bigarrenik, euskal hiztunak). Euskal kultura proiektu politiko baten muina izan da eta, bilduma izateaz gain, euskaldunen sorkuntza edo hazkuntza bilakatu zen; hartara kulturgintzaren eta kultura-politikaren beharra sortu zen.

3. Modernitatearen aldaketaz eta norabideaz asko esan da. Bestelako aro batean omen gaude. Modernitatearen azken aroan, modernitatearen une gorenean edo modernitatea, atzera utzita, modernitate osteko garaian. Zer da euskal kultura aro honetan? “Euskal jarduera eta osagaien hazkuntza” hurrengoan, landu eta argudiatuko dut. Erantzun horrek galdera asko dakar berarekin. Zer dira euskal kultura-jarduerak eta osagaiak, eta zer gertatu da edo gertatuko da euskaldunekin eta kultura-eragileekin? (hibridazioaren afera).

Kulturaren “eginkizunak”:

- Gizarte (esparru) tradizioaletan: euskaldunen bizimodua (IRAUPENA).
- Gizarte (esparru) modernoetan: euskaldunen hazkuntza (HEZKUNTZA).
- Gizarte (esparru) postmodernoetan: euskal kultura-osagaien hazkuntza (EKOIZPENA).

Zenbait adibidek argituko digute esandakoa:

1. Euskaldunen bizimodu tradizionalak. Antropologiak, etnografiak zehazkiago, adibide asko eman digu. Antropologoek eta bestek azturak, sinesmenak, errituak, lanak, jarduerak, gauzak, tresnak eta abar modu ordenatuan, osotasun koherente batean antolatu zituzten eta mundu oso bat irudikatu zuten: euskal mundu tradizionala. Adibide ona da Azkueren *Euskal Herriko Jakintza* edo Barandiaranen lan etnografikoen bilduma<sup>6</sup>.

---

6. Bitxia da gure mitoak eraisteari ekin dioteneke zelari begiratzen dioten euren ziborrari. Euskal mito modernoak sortze-lanean, historialariek historialarien zeregina ezinbesteko jo dute, literatura-kritikoek literaturgileen lana lehenetsi dute, antropologoek antropologoena, politologo eta soziologoek ideologo eta politikoena. Antza, mito horiek mota guztietako intelektual eta pentsalarien mozkinak izan ziren. Mitogintzak eta mitoei gizarte-sustrai sendoak izan dituen eta dituen seinale argia izan arren hori, gutxitan ikertu da indar horien zergatia, eraispen errazetik harago. Ikusi, hurrenez hurren, honakook: Sánchez-Prieto (1993), Zulaika (1996), Juaristi, J. (1988), Kortazar, J. (1990), Bidart, P. (1986).



2. Gizarte modernoak: zibilizazioa edo kultura jasoa. Nazio edo herri guztiek zer edo zer eman diezaiokeete maila goreneko kulturari; geuk ere bai, horra hor, Txillida edo Oteiza... Gizarte bakoitzak eman diezaioke bere onena kultura unibertsalaren kanonari.

Herri-kulturatik nazio-kulturara: herri-kulturek mundu tradizionaletik mundu modernora igarotzeko nazio-kultura bihurtu behar izan zuten. Eta "tradizioa" asmatu, herri edo tokiko kultura "asko" zegoen tokian nazio-kultura bakarra sortuz. Lan honetan aritu ziren erromantikoak, idazleak, abertzaleak eta "proto-abertzaleak"... Adibiderik onena Sabino Arana bera da: denetarik asmatu zuen nazio-kultura sortzeko asmoz. Baina, jakina, ez zen bakarra izan: Iratzarkundea holako egitasmoa izan zen.

"Popularra": gaur kultura popularra zer den definitzea ez da batere erraza; izan ere, hibridazioak jota omen dabil lehen herriarena zen kulturgintza. Kultura-industria edota masa-kultura "herriak" sortzen duen kultura-ekoizpenarekin nahasi dira. Horrez gain, ezin dugu hartu "herria" kultura-eragile bakar eta sinpletzat: herria, gaur, eragile askok eta ezberdinek osatzen dute. "Kontsumitzeko" edo bizitzeko estilo ezberdineko jendeak eta uneak nahasten dira "herrian".

3. Gizarte-esparru postmodernoetan: nabariena "kultura-salgaien" kasua da. Industriak mundu osoan zabalduetako merkatuetan lehiatzeko-edo, "bertoko" kultura ere salgai bihurtu zaigu. Lehen esan bezala, bi norabidetan:

- Gustu hutsez edota lehiatzeko egin diren hibridoak, esperimentuak edo saioak: Kepa Junkera, Amaia Zubiriaren hainbat abesti (oro har "fusioa" musikan) edo gastronomian egin diren "sinkretismoak".
- Kultura-molde jakin bati eusteko (bertokoari eta nortasunari atxikitako kulturari eusteko) eginikoak: bertsolariak nonbait, Olentzaro, Zuberoako pastoralak, euskal artisautza (Guggenheim inguruan edo Miarritzeko hainbat dendatan ikus daitekeen bezala, turismoarentzako salgai ona izan daiteke)...

Baina esparru postmodernoetan gertatzen ari dena hobeki ulertzeko hurrengo atalera igaroko gara.

### **3. Kulturaren afera modernitatean eta modernitate ostean. Kulturaren gaineko diagnostikoa**

Zelan ekarri kanpotik "nortasuna" galdu barik? *Hemen* esaten dugunean zer esan nahi dugu? Zein da komunitatea eta zergatik hitz egiten dugu "espazio-terminoak" erabiliz (zergatik *hemen* gu esateko...)?

Zer dugu jatorra edo berezia (zein da bereizgarria)? Hizkuntza, aspaldiko gauzei eusteko joera<sup>7</sup>, berezi izan nahi hutsa?

---

7. Hau da, lehenaldiaren indar diskurtsiboa. Gure artean lehenaldiaren indarra ez da uste bezain gogorra. Ez gara lehenaldiaren jarraitzaile itxiak, baina ezin da ukatu, euskal nortasunaren ezaugarri bat "lehenaldia mirestea" dela. Askotan, zerbait legitimatzeko aspaldikoa dela esan behar da. Tradizioaren eta tradizionalismoaren arteko muga da hau. Tradiziozaleak gara, nahiz tradizioak berriak izan. Gogoratu, bestalde, monumentu hitzak, gutxi asko, iraungarria esan nahi duela... eta gure herriak, antza, iraungarriak behar dituela.

Arazo hau ebatsiko bagenu, kultura- eta nortasun-kontuetan datozen aldaketa eta erronketan hobeki jokatuko genuke; *hobeki* diodanean, baikorrago eta konfiantza handiagoz bai norberaren kasuan bai elkargoaren kasuan ere esan nahi dut.

Lehenengo lana, mundu osoan gertatzen ari diren “aldaketak” aztertzea da. Diagnostiko oro-hartzailea egitea zaila izan arren, gutxienez hurbilketa moduan kulturaren gaur egungo egoera munduaren egoeran kokatu beharra dago:

### **3.1. Lurraldegabetzea**

#### *3.1.1. Migrazioak*

Herrixketatik hirietarako bidaiak eta hirietatik hiri handiagoetarakoak mundu tradizioaletik modernitaterako bidaiak izan ziren eta dira. Gaur, XIX. eta XX. mendeetan nazioa (zehazkiago: nazio-merkatua) eraiki zuten migrazioen ordeztu “mundu-merkatua” eraikiko dutenak dabilta: sistema globalaren periferietatik erdigunetarako migrazioak, hain zuzen. Esan beharrik ez dago, kultura-molde nazionalak goitik behera harrotuko dituzte migrazio horiek. Arazoak eta aukerak agertu dira migrazio berri horien eskutik: kultura guztiak hasi dira nolabait sustriaiak galtzen, omen zegokien lurraldean edo herrialdean bertan ere arrotz sentitzen hasi dira. Honetan, egia esan, euskaldunok lehenago izan genuen eskarmentua: naziogintzaren eta modernizazioaren ondorioz “euskal kultura” (batez ere, euskara) arrotz bihurtu zen (zuten) Euskal Herrian bertan.

#### *3.1.2. Desnazionalizazioak*

Kultura berriek lurraldea galdu dute, era berean, memoria, tradizioa, urteetan metatutako kapitala... Eredutun argia da “gazteen hiri-kultura”: ikus-entzunezko bitartekoetatik jasotzen dute euren kapitala, lurralderik gabe, tradizioz gabe. Kultura horiek munduan zehar barreiatu aurkituko ditugu, sasiunibertsalak dira (homogeneoak mundu osoan), berri-berriak, eta batez ere, erabat komertzialak eta kontsumigarriak. Gazteek kultura-kontsumo horren bitartez zerbait bereizgarria edo nortasun berezia topatu nahi dute, baina mundu osoan ikus-entzunezko industrietan ezarritako kultura-moldeak errepikatu eta kopiatu egiten dute. Adibide onena horretako grafitia da; baina, jakina, merkatuak asko eskaintzen digu: «En las nuevas generaciones las identidades se organizan menos en torno de los símbolos histórico-territoriales, los de la memoria de la patria que alrededor de los de Hollywood, Televisa o Benetton» (García-Canclini, 1995: 32).

#### *3.1.3. Desmaterializazioa*

Telebistaren eragina, beste hedabideena bezala, ez da bakarrik bere aurrean, zuzenean gaudenean gertatzen, bizi osora zabaltzen da, mintzagaiak eta irudi komunak bertatik zabaltzen dira.

#### *3.1.4. Lurraldea edo herrialdea berreskuratu (kultura birlurraldatzea)*

García-Cancliniaren ustez prozesu horiek ez dira erantzunik gabe gertatzen ari: gizarte-mugimendu askok eta tokiko hedabideek ere kultura etnikoen eta kultura nazionalaren formak berreskuratu eta birsortzen dituzte. Hori, Mexikon edo Ameriketara gertatzen den antzera, bertan dugun erantzunezko bat da.

Castells-ek maiz defendatu du gizarte-mugimendu berrien eginkizuna arlo honetan. Gizarte-mugimendu berriek eta tokiko kultura-eragileek (askotan, jendeak, besterik gabe) herrialdea berreskuratzen dute beren eginkizunetan, kultura herri-ratzen dute eta inguruneari kultura-esangura ematen diote. Ikusiko dugunez, nortasunaren aldeko borrokek, tokiko kultura-eragileek eta autogestioak aurre egiten diete hemen deskribatuko diren prozesuei.

### 3.2. Globalizazio ekonomikoa (mundu zabaleko publikoak)

Kulturaren mundializatzea edo amerikartzea ez da kanpoko zerbait, ez da bakarrik kanpotik datorkigun oldarra edo eraso. Gure kulturaren barru-barruan garatzen ari den prozesua da. "Gure kultura" mundu-mailako sareetan sartuta daukagu: bai teknologia aldetik, bai ekonomia aldetik, bai kultura-erreferentzien aldetik. Beraz, sare horietan behin sartuz gero, mundializazioa "gure kultura" berratu dugu. Hortik aurrera, mundializazio-prozesuak berezkoak eta logikoak iruditu zaitzugu. Horrez gain, globalizazioa produktuen (eta kultura-gaien) hedapena baino zerbait gehiago da, globalizazioa herrialdeen arteko eta kultura-mailen zein kultura-eremuen arteko harremanen berrantolaketa da. Hegemonia zeinen eskutian dagoen argi dago, zein den munduan ezartzen ari den kultura-eredu nagusia ere bai, baina oraindik orain ikusteke ditugu kultura-mailen arteko hibridazioetatik sortuko diren kultura-eremu berriak (eta globalizazioaren oldarrari aurre eginez edo ihes eginez sor daitezkeenak) (Lechner, 1988).

### 3.3. Hibridazioa

Hibridazioaren gakoa ez da kultura ezberdinen nahasketa, ez hori bakarrik, behinik behin, kultura-eremuaren berrantolaketa osoa baizik. Etnien bizimoduetan, gizarte-klaseen esperientzietan sortutako kultura-moldeak edo lehengo oposizioak (tradizioa/modernitatea, modernitatea/modernizazioa, ahozkoa/idatzizkoa, kultura/popularra, unibertsala/partikularra, zuzena/birtuala...) nahasten ari dira, mugak desegiten eta oposizio hauen zertzeladak desagertzen<sup>8</sup>.

Kultura-mailak, hizkuntzak, modalitateak, hierarkiak, espazioak eta abar nahasten ari dira eta nahasketa horietatik berriak sortzen ari dira.

Garcia Canclink (1989, 2001) prozesu hauek aurkitu ditu hibridazio horretan:

- "Deskolekzioa": kultura-produktuak nork bere gustura, bere interesen arabera, bere modura antolatzen ditu "bilduma" berezi batean, bere-beregiko bilduman.
- Lurredegarabetzea: arestian esan bezala, kultura guztiak mugakideak dira gaur egun. Nahasian agertzen zaizkigu: kultura popularra eta elitista (beren erro tradizional eta guzti) mundu modernokoak omen dira; masa-kultura postmodernokoa da, dena nahasian. Kultura-kontsumo berriek ohiko kultura-moldeak desegituratu egiten dituzte.

---

8. Gurean bertsolarien kasua aipa daiteke. Lehengo bertsolariarekin alderatuta, ez dago batere argi non kokatu behar dugun oraingoa: idatzizko kultura dute, hiri-giroan bizi dira, telebistan agertzen dira parra-parra, masa-ikuskizunak antolatu dira beraien inguruan...

Erdiguneko kultura hegemonikoek ere kultura periferikoetatik hartzen dituzte osagai berriak. Batzuetan “lehengai” moduan erabiltzen badituzte ere, askotan benetako fusioa izaten da. Kasu argiak ditugu, esaterako, musika-arloan: Afrikatik edota Ameriketatik inportatutako musikak, bazter-auzoetan sortutako musikak eta abar kontsumo-gai berri eta errentagarriak izan daitezke. Are gehiago, hibridazio horien inguruan gustu berriak ere sortzen ari dira.

Dena den, ñabardurak daude hibridazioaren gai honetan. Lehenengoak, agian, hibridazioaren berritasuna kolokan jartzen du, hibridazioa ez baita berria. Areagotu egin da merkatu globala eta teknologia berriak direla medio, baina edozein kultura berez “hibridoia” da<sup>9</sup>. Kultura guztiak betidanik hibridoak badira, zergatik hitz egin orain hibridazioaz. Duda barik, arrazoi soziopolitikoak daude tartean: nortasun berezia, monologikoa eta materia bakarrekoa defendatu dituzten kultura-ideologiak bertan behera amildu dira, hemen aztertzen diren prozesuen eskutik. Modernitatean kulturak gizarte- eta nazio-kohesioa ziurtatzeko “tresnak” izan dira, nolabait kultura unibertsalarekin lehian; gaurko postmodernitatean, aldiz, merkatuak agintzen du kulturaren ideologia. Eta merkatuak ez ditu onesten bere horretan dirauten kulturak, merkatugai bihurtuta izan ezean.

Bestalde, nortasuna defendatu behar ez duen kulturari (nortasun hegemonikoetan bezalaxe) hibridotasuna aitor dakiok. Beste guztien kasuetan, diskurtso hegemonikoak eta merkatuak agintzen dutelarik, gaur, kultura baten jatorrasuna eta isolamendua (aspaldian, benetakotasunaren sinonimoa izan dena) aldarrikatzea “itsusia” izan daiteke, modatik kanpokoak.

Hala ere, mestizajea ezin da, lehengo jatorrasuna bezala, kritika barik onartu. Askotan mestizajea merkatuaren eragin basatia baino ez da, azpiratze hutsa. Askapen-prozesu edo aukera moduan aurkezten zaiguna menderakuntza izan daiteke. Alternatibak badira: hibridazio heteronomoari aurre egiteko tokian tokiko hibridazio “endogenoa” lehenetsi behar omen dugu (García Canclini, 2001: 28).

Dena den, hibridazioari egindako kritika askok ahazten du lehenago esan du-dana: ez dagoela batere garbi inoiz euskal kulturaz edo euskal nortasunaz, esaterako, arazorik gabeko adostasunik izan den. Euskal kultura definitzeko arazoak egon dira beti, jarrera batzuk besteak baino “garbizaleagoak”, jatorzaleagoak izan dira. Izan ere, kultura eta nortasun oro kapital bereziko eremu sinbolikoak dira eta kapital sinboliko hori gatazka askoren emaitza da. Euskal kultura zer den definitzen gatazka asko egon den eta dagoen bezala, besteetan ere definizioz gintza hori oso gatazkatsua eta etengabekoa da. Definizio hegemonikoa lortzen denean (hau azken finean, botere-kontua da) “benetako kultura jatorra” zein den argitu dela esango dugu. Modernitatean, hegemonia-une horretako kultura ez da “hibridoia” izan, ez da “mestizoa” izan. Jatorri “nahasiak” eta “anitzak” ahaztu egin dira kultura- eta nortasun-kapital jatorra eta berezia sortzeko. Baina hori, esan bezala,

---

9. Edward Said-ek (1993), adibidez, honela azaldu zuen hau: «todas las culturas están involucradas entre sí; ninguna es pura, ni única; todas son híbridadas, heterogéneas, nada monolíticas». *Nabarra* aldizkarian plazaratu du Xamarek euskal kulturaren mestizajeaz gogoeta interesgarria. Baina gogora dezagun euskal kultura ez dela hain zuzen ere mestizotzat edo hibridotzat hartu, alderantziz, beraren jatorrasuna eta bertakotasuna aldarrikatu da behin eta berrero.

modernitatearen moldea izan da. Postmodernitatean, berriz, kulturaren jatorri nahasiak gogoraraztea jarri digute modan (ez erabat, egia esan).

Nortasuna eta kultura jorratzeko, ikuspegi historiko, sozial eta politiko osatua hartzen badugu, hibridazioa kultura-molde hegemoniko baten aurretik doan unea baino ez dela ikus dezakegu, kultura-dinamiken eta norgintzaren berezko ezaugarria baino ez dela.

Azkenik, guri gehien interesatzen zaiguna: deskolekzioa aipatu dudanean norberaren agentzia agertu zaigu, izan ere, hibridazioa norberaren baitan ere badago. Kontsumoari buruzko ikerketetan argi frogatu den legez, norberak egiten duen kontsumoa guztiz hibridoa izan daiteke.

Oso jatorri ezberdineko jarduera kulturalak hauta daitezke eta nork bere modura antolatu hierarkia pertsonal batean. Jakina da mila eragin jasaten direla eta guztion "hautamena" ez dela neurri berekoa, baina, hala eta guztiz ere, neurri batean edo bestean, hautesle bakoitza ere hibridoa izango da, alde edo moldez.

### **3.4. Kultura-kontsumoaren era berriak**

Hibridaziotik kultura-kontsumora igaro naiz. Labur esanda, kontsumoak bere legea inposatu du kulturaren arloan. Orain, "kontsumorako kultura-ondasunei buruz", "kultura-kontsumorako jarduerari buruz", "kultura-eskaintzei buruz" edo "kultura publikoei buruz" hitz egin dezakegu. Eta kontsumoa ez da, inondik inora, ez hiritartasun berri baten sorlekua, ezta gizarte-elkartasun sendoago batena ere. Beraz, kulturak bi helburu horiek atxikitzeko ukan zezakeen indarra galtzen ari da.

Hala ere, zenbaitek uste du kontsumoak espazio publikoaren berdefinizioa dakarrela eta ez bere azkena, kontsumoaren bidez nortasun berriak sortu eta plaza-ratzen direla: balioesten duguna kontsumitzen dugu eta horrela kontsumoaz gure balioak, gure gustuak, gure bereizgarriak indartzen ditugu. Kontsumitzen duguna omen gara, garena kontsumitzen dugu.

Kontsumoan sortzen diren bizi-estilo berriek elkargo "arinak" gauzatzen dituzte. Elkargo eta nortasun horiek kontsumigai arinak dira: behin erabilia, bota daitezke. Jendeak nortasunekin eta nortasun-gaiekin bestelako lotura izango du; inoiz nortasun-gaiek norbera bizi bazuten, norbera nor zen gai horiek definitzen bazuten, gaur norberak erabiliko ditu gaiok nahi modura. Nor izateko askatasunaren edo behintzat nortasun irekien garaian bizi omen gara.

Hala ere, mugak agerian daude: "kontsumitzaileak du boterea" sofisma populista polita izan daiteke publizisten begietan, baina jendeak ez du hautatzeko "botere osoa". Hautamena mugatuta daukagu guztiok: alde batetik, geure egoera ekonomikoak mugatuta; bestetik, jaso dugun eta egin gaituen kultura-kapitalak mugatuta (Bordieu, 1988 eta 1997).

Kontsumoa eta kontsumoaren inguruan ezartzen diren kultura-jarduerak eta harremanak maila ezberdientan eta botere-desoreketan kokatutako subjektuen arteko harremanak dira. Harreman horietan boterea eta hegemonia berrantolatzen dira, gehienetan ezarritakoari eusten zaio, eta gutxiagotan ezarritakoa iraultzen da.

Egia esan, hiritarren kultura-kontsumoa kultura-industria handiek ekoizitakoaren kontsumoa da, eta, zalantza barik, horretan telebistak eta bitarteko elektronikoei dute nagusitasuna.

Kultura-eremu guztiek ez dute indar bera, ez ekoizteko, ezta beren produktuak plazaratzeko eta hedatzeko ere. Kultura-gai guztiek ez dute irauteko aukera bera. Hori dela eta, kultura “gatazka”-fronte bihurtzen da askotan: nor bere nortasuna gauzatu eta hedatzeko, nor bere kulturari iraunarazteko, nor bere errealitateari buruzko irudikapena hegemoniko bihurtzeko, edo plazaratzeko behintzat. Kultura-fronteak edozein gizarte jardueratan aurki daitezke: sineskeretan, iritzietan, jarretan, jaietan, ikasketetan, lanean, aisialdian, bidaietan eta, jakina, erosketetan.

Jarduera horietan kultura-gatazkek aurkitu ditugu, guztietan gure nortasuna indartu dezakegu, gure kultura nagusitu, gure errealitatea gauzatu eta hedatu. Askotan nahita eta gogoz egin ere: kultura- eta nortasun-jarduera bereziak antolatzen ditugu horretarako, “nortasun-erritualak”, eta ikur bereziak objektibatzeko “nortasun-gaiak”. Baina hori hurrengo atalean ikusiko dugu.

Euskal Herrian desoreka eta desberdintasun horien berri badakigu. Euskal nortasunari lotutako kultura-kontsumoa handitzeko ahalegin mordoa egiten da maila guzti-guztietan, erakundeei lan horretan behar beste laguntzeko eskatzen zaie (eta erakundeek beren legitimazioa indartzeko erabiltzen dituzte kultura-politikak).

Baina, zergatik kontsumitu gauza bat edo beste? Zein unetan eta lekutan kontsumitzen dira euskal nortasunaren “kultura-gaiak”? Zeintzuk dira Euskal Herrian ditugun kultura-kontsumoak? Eta kontsumo hori euskalduntzeko ekoizpena nolakoa da<sup>10</sup>?

#### **4. Norgintza eta kulturgintzaren helburuak modernitatean**

Kulturaren gaitik nortasunarenera igaroko gara. Norberaren nortasunaren eragintza aztertuko dut, talde arteko harremanek eta logika kulturalek/molde kulturalek nortasuna nola eraldatzen duten ulertzeko. Atzera egingo dut eta modernitatearen norgintza-eredu nagusia aztertu ondoren, gaurko norgintza zertan den birpasako dut.

Gizakien nortasuna gizartean nor diren (nor bait diren eta nolakoak) zehazteko prozesua da: besteekiko harremanetan nor diren, besteengandik zertan bereizten diren eta besteekin zelan elkartzen diren. Norberaren nortasuna, norberaren alderdi barrukoenak eta pribatuenak ere gizarte-harremanen emaitzak dira. Nor bere burua moldeatzen du gizarte-harremanen arabera. “Nor bere burua” bera ere, gizarte-harremanen edo elkarrekintzen alderdi bat da.

Gizartea nolakoa, gizartekideak halakoak: harreman, lotura eta elkarrekintza askoko gizarteek gizaki plastikoak behar ditu, hau da, gizarteak ezarritako nortasunera egokitze erraztasuna daukaten gizakiak, bere burua aldarazteko gai

---

10. Euskal kulturaz diagnostikoa osatzeko jendeak euskal kulturaz zer ulertzen duen esan ostean, industria eta kontsumo kulturala nolakoak diren azaldu beharko genuke. Kopuruak zehazteko egin diren ikerketetan (Amezaga, 2000), (Juaristi, 2000), berriro ere, oinarriko afera aurki dezakegu: euskal = euskara *versus* euskal = EAEkoa...

direnak. Hori omen da gizarte modernoen kasua, non bizitza harreman eta elkarrekintza askoko giza-taldeetan garatzen den.

#### 4.1. Norberaren nortasuna zelan eratzen den: *Self*-aren gizarte-jatorria

Azken urteotan gizarte-zientzietan *self*-ari buruz eta ni-ari buruz hitz asko egin da. Giza subjektibitatea aztertzeko eta azaltzeko bide bat ireki da *self* kontzeptuaren bitartez. Euskaraz *norbera*, *nor bere burua* edo *buru* itzuli ahal dugu ingelesezko *self* hau<sup>11</sup>.

Gogoeta-ildo honen hasieran Mead-en lana (1934) dugu. Meaden ustez, subjektua edo zuzenago *self*-a ez da izaki edo ente bat, gizartean izateko modu bat baizik. *Self*-a bere buruaz eta besteek berari buruz uste dutenaz gogoeta egiteko gai den izakiaren “izaera” da. *Self*-a izateko modu berezi bat da, bi atalez edo bi gaitasunez osatutakoa:

- ME: pertsona objektua denean, norberarentzat edo besteentzat (euskaraz, beraz, alde batetik besteek nola ikusten gaituzten eta nork bere burua nola ikusten duen).
- I: pertsona subjektua denean (berdin da objektua, ni edo nik...).

Biek osatzen dute izateko modu berezi hori; gizartean bizi ahal izateko ezinbestekoa duguna; izan ere, nork bere burua besteen iritzien eta asmoen arabera gidatu behar du elkarrekintzetan.

ME horiek rol kontzeptuarekin parekatu ditu hainbatek; I, berriz, jendaurreko jarduna baino ez da (Gerth eta Wright Mills).

Dena den, interesgarriena zera da *self*-a eta gizartea ezin direla banandu. Subjektua ez da inoiz, ezin da izan, izaki isolatu bat, elkarrekintza guztiz ezinezkoa da holako erreflexibitate gabe. Elkarri eraginez edota elkarrengandik jaso dezakegu “geure buru bat”, “ni neu” izan ahal izateko besteekikoan nolakoa naizen, zer naizen eta abar jakin eta ezagutu behar dut... Ni-a edota “neure burua” sortuko da gizarte-jokoan, gizakien artean.

Meaden iritiz, subjektuak besteen rola bereganatuz garatzen du nortasuna. Nortasuna elkarrekintzen funtzio bat baino ez da.

Tajfel eta Turner gizarte-psikologoaren eredua hartuko dut azalpena osatzeko. Gizarte-nortasuna zelan eratzen den azaltzeko Turnerrek (1990) (Tajfelen lanei jarraituz) “burukategorizazioaren teoria” plazaratu zuen.

Horren arabera, nork bere burua ezagutzeko gizartean eskura dituen baliabide kognitiboak erabiliko ditu (kategorizazioa). Kategoriatu horiek ez dira guztiak mota berekoak, kategorizazio-mailak daude:

---

11. *Self* bihurtaria denez, *norbera* ez da hitz egokiena. *Nor bere* baliatu da maiz, baina euskaraz bada besterik: Axularrek idatzitako «bere buruzko ezagutza bat...» Mitxelena «conocimiento inmanente» itzuli zuen; Haraneder-ek emandako «gure buruazko mesfidantzia» ingelesez «self-suspect»; burua erakutsi, «self-presentation» eta Vicenta Mogelen idazkietan «buru-kalteko» topatu dugu. Hitzak hitz, *norbera* eratzen duen batasun psikikoa era abstraktuan adierazteko: *bere buru* (“nor” erreferentziala agertu barik) eta bihurtaria den *buru* erabil ditzakegu. «Beraz, gizona ezta bere buru soilki: familia, iria, sorterría, gizadia: guzti ori da gizona», Villasantek.

<i>Kontestu edo jarduera-mota</i>	<i>Objektuekin</i>	<i>Beste taldeekin</i>	<i>Taldekiekin</i>
<i>Buru kontzeptuaren zehaztapena</i>	Kategorizazio gorenaren ("gizakiak gara")	Gizarte-kategorizazioa ("euskaldun eta emakumeak gara")	Norberaren kategorizazioa ("medikua, lotsatia... naiz")
<i>Nortasuna</i>	Giza nortasuna	Gizarte-nortasuna	Norberarena.

Maila eta kategorizazio horiek guztiak integra daitezke kontzeptu oso bat eratzeko: mailak bateratuz nor bere burua eratuko du.

Kontestuak edo inguruak maila bateko edo besteko kategorizazio-prozesua eragingo du. Horrexegatik, gizarte-kategorizazioak ugaltzen direnean buru kontzeptua konplexuagoa izango da, eta horrexegatik, nor bere nortasunetan batzuk besteak baino bereagoak sentitu eta finkatuko ditu, beti ere norberaren eskarmentuaren eta egoeraren arabera. Nortasunak, azken finean, egoeran egoerako izaten dira.

Gorago esan bezala, gizarte-taldeek norbait izateko irudika-moldeak eskaintzen dizkiete partaidegaiei (Gergen, 1987) eta horrela, gizarteratu ahala, beren eskarmentuaren eta eskura dauden baliabideen arabera eraikiz doaz buru-kategorizazioen multzo sintetiko bana: buruidentifikazio (Epstein, 1978) edo *self-concept* bana (Mackie, 1986).

Stryker-ek (1987) dioenez *self*-a «nabaritasunaren arabera atondutako nortasun askoren egitura da». Eta nondik ateratzen dute "nabaritasuna" nortasunek eta *self-concepts* horiek? Bada, gizarte-konparazioetatik. Hortaz, azkenean sortutako buruidentifikazioa nortasun askotariko multzo bat delarik ere, batzuk izango dira gehien erabiltzen direnak nor bere burua ulertu eta izanarazteko.

Horri Epstein-ek nortasunaren erdigune afektiboa deritzo. Egoerak subjektuak erabiliko duen burukategorizatorako nortasuna zehazten duen arren, batzuetan nortasun horrekiko atxikimendua ez da egoeran egoerako, batzuetan nortasun hori subjektuaren nor-izanaren muina bera da. Kasu horietan subjektibatze-prozesuan topatuko dugu burukategorizazio egonkor horren jatorria (Stryker, 1987; Gergen, 1987; Epstein, 1978).

Ondorioz, norberatasuna ez da inoiz gai bakarrekoa, baina gizarteratzean nortasun-gai batzuk besteak baino gehiago nabaritutako dira: nonahi ere agerian izango dira. Euskaldunen norberatasunean, esaterako, gizarte- eta politika-dinamikek horretaraturik, hizkuntzak berebiziko nabaritasuna izango du. Hainbat emakumeren kasuan, berriz, jeneroen mugek horretaraturik, berauek izango zaizkie ageriko. Izan ere, kategorizazio-prozesuak gizartetik ezartzen diren "hetero-kategorizazioekin", gizarte etiketajeeekin, osatu behar dira.



Kulturaz esandakoarekin honela osa genezake koadroa:

<i>Kategorizazio- -maila</i>	<i>Harreman-mota</i>	<i>Jakintza-mota</i>	<i>Baliabide kognitiboa</i>
Gorena	Natura versus gizateria	Giza jakintza unibertsala	Gizakia edo subjektu hutsa
Talde artekoa	Talde handiak / talde txikiak / talde gainordenatua ("nazioa")	Talde-jakintza: kosmobisioetatik ideokulturetara.	Talde-estereotipoak eta talde-dinamikak
Pertsona artekoa	Talde barrukoak	Norberaren eskarmentua	Estatusa, rolak, bizitza-proiektuak

Baina burukontzeptuaren gizarte-konplexutasunaren berri ematen bukatu behar dut. Meadek berak kontuan hartu zuen "norberaren egitura" (*self*: ME / I) ez dela —unibertsala bada ere— abstraktua, hau da, elkarrekintzak nolakoak eta zenbatekoak diren hartu behar dela kontuan norbera nolakoa izango den jakiteko. Beste modu batera esanda, *self* zehatzak historiaren eta kultura-aniztasunaren barruan ulertu behar direla.

Norberaren sorrera eta nolakolasuna ulertzeko, gizarteko eta pertsona arteko harremanak/elkarrekintzak nolakoak eta zenbat diren aztertu behar dugu. Tesi horren arabera, gizarte-ingurune sinpleak eta konplexuak daudenez, gizarte sinpleetan pertsona arteko harreman- eta elkarrekintza-kopurua txikiagoa izaki pertsonak bere burua ezagutzeko inguru, egoera edo aukera gutxiago du: gizarte hauetan norberaren rola definituagoa da eta ikaste-prozesua ere sinpleagoa da (nolabait, norbanakoak "norberatasuna" aukeratzeko eta bereganatzeko lan txikiagoa egin behar du). Gizarte konplexuetan, ordea, kontrakoa gertatuko da.

---

23. Stryker, S. (1987) "Identity Theory: Developments and Extensions" eta Gergen, K. J. (1987) "The social construction of selves" in Yardley, K. & Honess, T. (arg.) *Self and Identity: Psychosocial Perspectives*. J. New York: Wiley & Sons. Epstein, A. L. (1978) *Ethos and Identity*, London: Tavistock.

## Gizarte inguru sinpleak versus konplexuak:



- Gizarte tradizioaletan adin, jenero, estamentu, leinu eta antzeko kategorien araberrako banaketek atontzen zuten gizarte-bizitza. Harreman-zirkulu gutxitatik igaro behar zuen norbaitek eta zirkulu batean zela, uztardura horrek pertsona oso-osoki hartzen zuen. Rol edo Me gutxi zuenez nork bere burua osatzeko arazo gutxi izango zuen, eta “buru” horrek bat egingo zuen bere ageriko eta jendaurreko nortasunarekin (gogoratu, *pertsona* hitzak mozorro edo ‘maskara’ esan nahi duela, hau da, besteen aurrean garena).



- Gizarte modernoetan harreman-zirkuluak gainjartzen dira, pertsona bakoitzak hainbat rol, hainbat “Me” bereganatu behar du. Batzuk “bereago” egingo ditu. Me/I arteko urrardura handituko da; nork bere buruaz gogoeta gehiago egin beharko du. Simmel-ek esan bezala: «gero eta talde gehiagoko partaide gara, baina partaidetza gero eta txikiagoa da». Alde batetik, norbait izateko hautamena handitu egin da, bestetik, hautamen horren gabeziak agertu dira eta, ondorioz, norgintza “aske” baten aldeko eskariak eta borrokak.

Gogoeta honi izari edo dimentsio historikoa eta kulturala gehi dakiok. Mendebaldeko historian gizarte-mailak batuz, gero eta gizarte konplexuagoak sortu ei dira. Adibidez, Erdi Aroko herrirka batean bizi zen jopu nekazariaren eta gaur egungo neska/mutil baten artean unibertso sozial izugarri handi baten aldea dago. Zenbat pertsona ikusi (ko) dute biek? Zenbat egoera berri edo ezberdin biziko dituzte? Zenbat urte beharko dute “nor” bat garatzeko eta zenbat aukera izango dute “nor” hori aukeratzeko<sup>12</sup>?

Jakina, hautamen hori ez da guztiz librea, ezin da izan, gizarte bakoitzak (kasik talde bakoitzak esan genezake) hainbat nortasun-eredu baitu, gizarte horretan bertan “nor(bait)” izateko. Baina gizarteko esparruak, harremanak eta elkarrekintzak ugalduta ahala proiektuak eta rola ere ugalduta egiten dira eta, beraz, hautamena handituz doa. Horrek badu bere alde txarra: pertsonari berari egozten zaio norgintzaren kudeaketa, eta gizarte-aferra zena norberaren arazo bihurtzen da.

Modernitatean (mendebaldeko historian zehar areagotuz joan den prozesua delako, baina kanpoko beste gizarte batzuetan ere gertatu da, Txinan kasurako) norgintza burugintza bihurtu zaigu. Ideologia hegemonikoak, behintzat, halaxe nahi izan du: nork bere burua eraiki behar du.

Nortasunak (rolak, estatusak, lehengo ohorea eta abar) pertsonalizatu eta abstraitu egin dira: egoera edo ingurune jakin batean nor izateko bidea zena, besteekiko harremanetan izateko moduak zirenak, orain, antza, barnemin berezia da (horri, esan beharrik ez dago, indibidualizazioa eta introspektzioa deritzote).

---

12. Hori da, besteak beste, Gergen-en (1992) aburua. Giddens edo Lifton ere bat datoz modernitatea eta nork bere nortasuna sortzeko aukera-aniztasuna lotzen dituen iritziarekin; ikusi Giddens (1991), Lifton, R. J. (1993) eta Elster, J. (1986).

Azalpen soziologiko simplea eman daiteke: gizarteetan jokatzeko ditugun paperak asko direnean (gizarte-inguruneak ere asko direlako): sentitu ahal dugu paper horietatik honantzago (gure baitarantzago) badela “gune” bat edo nortasun-erdigune bat, gu geu garena benetan; jendaurreko paper horien euskarria eta eragilea dena. Gune hori egoera zehatzetatik eta bizitzaren gorabeheretatik “honantzago” dugun gure nortasun berezia eta askea bide da. Irudikapen honen jatorria hurrengoan ikusiko dugu.

#### 4.2. Modernitatearen norgintza-ereduak

Dugun norgintza ulertzeko atzera begiratu behar dugu, sustraietara. Gaurko norgintza “subjektuaren diskurtsoan” kokatu behar den bezala, subjektua “identitatearen diskurtsoan” kokatu behar dugu.

Heidegger-ek “izakien filosofia” zeritzon “identitate-diskurtso honek” sustrai filosofiko sendo eta sakonak ditu. Gure zibilizazioaren ardatza edo zutabea omen da. Baina niri orain interesatzen zaidana ez da diskurtsoa bera, baizik eta diskurtso horren objektibatzea; izan ere, objektibatzea gizakiengan “norbanakotze” prozesua izan baita. Hau da, “subjektua” filosofia batean kokatu behar dugu: errealtatea, izatea, bitan urratzen duen ontologian, izateaz barik izakiez mintzo den ontologian. Eta izakiak bitan banandu zituen: “gogodunak” eta “gogogabeak”. Lehenengoek mundu material gogogabea menperatzeaz gain, euren burua eraiki eta meneratu behar dute. Horixe da “buru-erabakimenez” edo “autonomiaren proiektuaren” erroa. Modernitatean zehar garatu eta gailendu den norgintza-ereduan, gizakiek euren burua eraiki, meneratu eta eratu behar dute, bai gizarte moduan, bai norberaren kasuan.

Izakien filosofia:

Izaki gogodunak	Izaki gogogabeak
ESPIRITUA- KONTZIENTZIA: <i>RES COGITANS</i> . SUBJEKTUA.	MATERIA: <i>RES EXTENSA</i> . OBJEKTUA.
Gizabanakoak	Gauzak

Subjektuaren jatorria Erdi Aroan jainkoari buruz garatu zen irudia da. Hau da, garai hartan jainkoaren irudia guztiz ahalduna zen gogo-egile baten gisa taxutu zen. Baina aristotelismoaren demiurgoa ez bezala, bere gain eta bere buruaz jakitun zen agente edo borondatedun adimen gisa irudikatu zen. Horixe izango zen “subjektu absolutuaren” irudia. Zelan jantzi zuten subjektu goren hori?

Alde batetik, subjektua: eragiletasun guztiz ahalduna, ekintza eta *dynamis* (higidura) guztien sorburua, inolako eraginik jasan behar ez zuena, baina gauza guztiei eragiten ziena; horrez gain, borondatedun adimena zena. Ockhamek sakonera eraman zuen nahikunde libre horren irudia: munduari “ezinbestekotasuna” kendu zion, lege guztiak borondatezkoak zirela defendatuz, “errealtatea” adimen baten eraikuntza zela agudiatuz.

Bestetik, objektuak, mundu modernoak “naturaz” edo kosmosaz izan duen irudia. Printzipio eragile hori kenduta (eta jakina printzipio hori transzendentea da) mundua mundu arima gabetua da, materia hutsa, printzipio mekanikoez dabilena<sup>13</sup>.

Subjektutasun absolutuaz eta partzialez hitz egin dut; gizonak jainkoari egotzi-tako ezaugarriez zelan jantzi zituzten. Historia hau erlijioaren gainbehera bera da, munduaren sekularizazioa. Eta jakina denez, kosmobisio erlijiosoaren gainbehera esparru sinboliko berri batzuen sorrera eta nagusitzea da. Zeintzuena? Modernitatean zehar autonomia (berariazko diskurtsoa eta gizarte-esparrua) lortu duten espazio sinbolikoak: gure jomugari dagozkionak, zientzia eta politika, batik bat. Eta espazio sinboliko horien subjektua, norbanakoa da.

Zer ote da norbanakoa? Zer edo zer esan dugu aurretiaz. Gizakiei “nortasun abstraktu” bat, absolutua, egotzitako modu bat dugu norbanakoa, baina harago joanda, gizakiak ulertzeko, sortzeko eta meneratzeko molde bat da, molde sinbolikoa, eredu- edo gida-funtzioa duena eta norberarengan (norberaren “gorputzean”) objektibatu egiten dena. Adibide gisa N. Elías-en definizioa (1990):

Hemen naiz, bakarrik guztiz; beste guztiak hor kanpoan dira, nire baitatik kanpo eta, aldi berean, bakoitzak bere bideari eusten dio bere barruan beraz beste inor ez den egiazko “nia”, “ni hutsa” delarik. Eta gainean mozorroa: besteekiko harremanak.

Gaur egun, *norbanako* hitzak zera adierazten du: unibertsoa gizaki bakoitza izaki autonomoa eta beregain dela (edo izan behar duela); eta, aldi berean, baduela zer edo zertan beste guztietatik bereizi, ezberdina dela (edo izan behar duela)<sup>14</sup>.

Norbanakoa ez da gorputza edo beste kultura batzuetan gorputzari dagozkion ekimen- eta harreman-sarea. Gurean, norbanakoa gorputzaz edo ekimen eta harreman horiez honantza dugun «berezkoa eta berezia den subjektutasun eragile eta nahikudeduna» da.

“Subjektuaren” edota “norbanakoaren” jatorri erlijiosoa azpimarratu dut eta hori zehaztu egin behar da, batez ere erlijiotik eremu politikora igaro eta gero gizartea zein gizakiak sortzeko teknologia bihurtu zelako (Foulcault, 1984 eta 1990).

Zehazkiago, lau esparrutan mamitu zen norgintza-modu hori:

1. Errenazimentuko gizakien agentzia eta autonomiaren aldeko borroka politikoa.

Botere profanoa zertu baino lehen, ni-aren aldeko borroketako lehenengoa erlijiosa izan zen. Introspekzioaren eta ni-aren hermeneutika erlijiosoaren sekularizazioa diskurtso filosofikoan bezala, lanaren eta salerosketen munduan gorputzu zen: burgesak izan ziren beren burua odol- edo leinu-lokarri gabeko “ni” gisa irudikatu zuten lehenak, beraiek bereganatu zuten diskurtso erlijiosoaren eta filosofikoaren “barneko ni berezia”, gizakien berdintasunaren eta autonomiaren funtsa zena.

13. Gorabehera nahikotxo egon da kosmobisio honen joan-etorrian, esaterako, Errenazimentuan Erdi Aroko heterodoxoen jarraipentzat jo ditzakegun hainbat mugimendu edo pentsalari animista (gauzetan berezko *dynamis* edo higidura sorburu zela ziotenak). Baina munduan, kreaioan, bazen objektu izateaz gain subjektua izan zitekeena, arimaduna edo, gizakia, zehatzago, gizona.

14. Dumont-ek (1987) modernitatea eta indibidualismoa garai bakar batentzat bi izen zirela uste zuen.

Horrela zabaldu zen modernitatearen arazo politikoa: pertsona guztiak bere buruaren jabe badira, zertan oinarrituko da boterea eta ezberdintasuna? Inork ez dezake inor menpean eduki, parekoa bada, eta parekotasun edo identitate hori komunitate berezi batean topatuko da: nazioan, jakina.

2. Nazioa “estatuaren boterea” zilegi bihurtzeko erabili zen irudikatutako elkar-goia izan zen. Eta naziokidearen irudia (“nazio-nornabakoa” dei diezaiokegu) gizarte osoaren irudizko parekotasuna gauzatzeko tresna izan da. Norbanakotasun homogeneo baten ereduaren arabera berdindu behar ziren naziokideak. Eredu hori gobernua errazteko eta legitimatzeko bezainbat jendea estatuari lotzeko bidea izan da.

Hasieran burges-estamentuaren eredia izan zena estatuko populazio osoaren eredu bihurtu zen. Burgesak izan ziren lehenengo nazio-klasea eta berak izan ziren gizarte zibilaren lehendabiziko kideak. Estamentuen erregimenaren aurka, burgesek nazioaren batasuna eta gizaki guztien berdintasuna aldarrikatu zuten; horretarako, gizarte aurreko norbanako hutsak eta berauen borondatezko gizarte-itunak irudikatu zituzten.

Sistema politiko modernoetan nortasunaren berdintasunaren bidez lortzen da legitimazioa. Agintariaren eta menpekoaren arteko lokarri psikologikoa “nortasun bera” izatean datza. Nazioa gizarte-ituna da: denok pareko izanda, geure burua gobernatzeko gai izanda, adostutako denon gobernua. Parekotasun hori ez da hutsa, ez da abstraktua edo formala: eduki jakin bat izango du, nazio-kultura. Kultura/nortasun horren erara hezi behar dira naziokide izango direnak, horrela nazioari berari eusteko, eta bidenabar, jakina, estatuari. Nazionalizatutako subjektuek bere nor-izanari eusten dioten neurrian nazioaren bidez legitimatzen den botere-egiturak iraungo du.

Maiz esan den bezala, herrien estatalizazioaren, nazio-estatuaren eta gizarte zibilaren eraikuntzaren oinarrian irudiz kontrakarrean doazen bi prozesu daude: indibidualizazioa eta totalizazioa.

Alde batetik, subjektu eragile, autonomiadun, arrazional eta erantzule hori lege-araategietara, zigor-kodeetara eta heziketa-egitasmoetara egokitu zen, lehengo subditoak nazio-estatuaren eta gizarte industrializatuaren partaideak izan zitezkeen hezi beharra baitzegoen. Prozesu hori “zibilizazioa” eta “subjektibazioa” izendatu dute Eliasek eta Foucaultek, hurrenez hurren. Estatuak banan-banan gobernatuko zituen naziokide guztiak, tartean zeuden lokarri eta elkartasun, botere eta atxikimendu guztiak gaituz (Nisbet, 1975).

Bestalde, nazioa edota gizarte zibila, estatuaren boterearen menpean zeuden herri eta jendeak totalitate uniforme moduan hartuz estatutik sortu zen. Eta sortze horren funtsean hiritar edo subditu guztien parekatze bat dago, baina ez edonolako parekatzea: eremu publikoan hiritarrak parekoak badira ere, eremu pribatuan ezberdinak izan behar dute.

Norberak berezitasun (singularitate) pribatua izan behar badu ere, guztien parekotasuna da eremu publiko-politikoaren irudikapena. Nolako parekotasuna, ordea?

Nazio-estatuetakoko klase agintariek endotalde nagusi bat irudikatu zuten boterea zilegi bihurtzearen: nazio-komunitatea. Endotalde hori eremu politiko batean (estatuan) zeuden gainerako lokarri sozial guztien gainetik jarri zuten. Elkargoa, esan bezala, ez zen elkargo hutsa izan, nortasun-ezaugarri jakinez hornituta zegoen. Naziokidearen edo hiritarraren eredua ez da gizabanako hutsa izan, ez isilpekoa, ageriko estandar bat baizik (Sampson, 1993).

Gizarte-zentro sinbolikoaren neurriko gizabanako osoak gizona, zuria edo nazio-kastakoa, goi- edo erdi-mailakoa, kultura eta hizkuntza nazionalduna, bere buruaren jabe (bai politikoki, bai ekonomikoki eta baita psikologikoki ere) arrazionala eta zuhurra izan behar zuen.

Bazterretan, nazioan baina hiritartasun osorik gabe, gizatasun osorik gabe, arrazionalitate gutxikoak, bere buruaren jabe izateko gauza ez omen zirenak: emakumeak, langileak, baserritarrak, umeak, behartsuak, bazter-hizkuntzakoak, beltzak...

Estatuak irakatsi die gizakiei “ni hiritarra” esaten: burukategorizazio hori estatuarekiko lotura sinbolikoaren eta psikologikoaren oinarria izateaz gain, estatuaren zilegitasunaren zutabe nagusia da. Baina biztanle guztiek ez dute lortu estatuarekiko lotura psikologikoa, estatuak eta gizarte-talde boteretsuek atondu duten nortasun-zentroarekin ez baitatoz bat.

Hortik, “Ni-aren borrokak” (norberaren duintasunaren aldeko borrokak), lokarri psikologiko hori lortzeko edo aldatzeko borrokak.

Gizarte-zentro sinboliko horretako partaideak ez du arazorik endotalde eta zentro hori zehazten duten gizarte-indarrak, diskurtso-ezaugarriak eta abar ahazteko edo jakintzat emateko, ezta indar eta ezaugarri horiek bere nortasunaren euskarriak direla ahazteko ere. Gizarte-zentroetan gizarte-mugak bigarren mailakoak dira, nagusiena norberaren nor-izana da, hau da, ezaugarri sozialetatik kanpo dagoen “pertsonea hutsa”.

Osterantzean, gizarte-zentrotik kanpo dagoenarentzat endotaldearen norbanako-ereduaren gizarte-jitea oso da nabari. Hiritartasunaren eremu publiko-politikora sartu ahal izateko bere ezaugarri gaiztoak ezabatu beharko lituzke: emakumea, beltza, ijitoa, behartsua, langilea, analfabetoa, etorkina... izateari utzi. Edo “zentro sinbolikoaren gizabanako-eredua” eraldatu eta gizarte-zentroko atea denei zabaldu.

Hiritartasunaren lorpenak subjektu abstrakturako baldintzak dira: ordezkartza politikoa, botoa, lege-berdintasuna, gizarte-segurantza, langileen eskubideak eta abar. Gizarte-, kultura-, politika-, ekonomia- eta jenero-mugek autokategorizazioa galarazten dutenean, heterokategorizazioa nagusitzen denean, nor bere buruaren aldeko politikak berpizten dira (Giddens, 1991).

3. Gaur egun, zentroko biztanleen parekotasun abstraktuari gizakiak elkarren artean lotzeko teknika berriek ekarri duten harremanen ugalketa gehitu behar zaizkio. Modernitatean “norbanakoak” talde-zama bota omen du bere autonomiaren alde, gizarte-lokarrietatik askatu bide da beregain izateko eta bere burua libre eraiki eta adierazteko. Modernitate ostean, aldiz, nortasun-diskurtso metafisikotik

ere askatuko da, niaren nor-izana eta bere-burua ugaltu ahal izateko. Gizabanako nartzisistaren ereduak eta bizimoduak harreman askeetan bizi nahi dute eta unean uneko aukerako izate irangakorra lehenetsi omen dute.

Testuinguru modernoetan nortasunaren ardatza “subjektibazioa” eta autokategorizazioa dira. Postmodernoetan, berriz, subjektuak segurtasun eta sendotasun nahikoa lortu du edukiontzi legez, edukiak, aldiz, kontsumo-gai bilakatu ei dira. Nortasuna kontsumorako arlo bat da.

Hala ere, modernitatearen printzipioak indarrean dirau: «zu zeu izan zaitez» edo «zeure burua ezagut eta gida ezazu». Autokategorizazioa da printzipio nagusia. Baina, “nor-bere burua” ez da dagoeneko izaki sustantziaduna, transzendentea eta iraunkorra. Aitzitik, gizarte-harremanetan gauzatutako “jarduera” berezia da. Nork bere gizarte-jardueretan bereganatzen dituen jardunek osatuko dute nor horren “burua”. Eta gizarte-esparru postmodernoetan gizarte-jarduerak askotarikoak direnez, ez dago jardun bakarra luzaz bereganatzerik. Argi dagoenez, norgintzan ere eredu nagusia kontsumoa da.

Nire ustez, norbanakotasun postmoderno hau Erdi Aroaren buruan agertu ziren autonomiaren eta singularitatearen areagotze bat besterik ez da. Mendebaldeko nortasun-tradizioaren balore nagusiak (giza autonomia, parekotasun publikoa eta berezitasun pribatua) areagotu egin dira.

Norbanako hutsa edo abstraktua, bere eratorpen nazionala barne, eta “norbanako nartzisista” tradizio berekoak dira eta gai eta eduki berdinak dituzte, nahiz eta egoera eta asmo ezberdinetarako izanarazi. Azkenak lehenengoaren hainbat argudio berpizten ditu: gizarteko eta politika-arloko mugak ahazten ditu, nor bere buruarekin jolasean ibil dadin. Hori, jakina, bideragarria da modernitatearen egiturek ondu dituzten gizarte-uneetan: gizarteko zentro sinbolikoan (klase, genero, arraza eta hizkuntza duen botere politiko batek bideratutako gizarte-zentroan) daudenek beren buruaren ongizateaz arduratuko dira, “nartzisistak” izango dira, nonbait.

4. Eta bazterrean geratu direnak zer? Bi bazter mota daude, gutxienez: modernoa eta tradizionala.

Lehenengoan subjektuak badu aktore- edo eragile-kontzientzia, bigarrean ez du garatu kontzientzia hori, ez du bere burua edota bere egoera aldatzeko erabakimena bereganatu, eta gertatzen dena jasoz bizi da. Bazter horiei dagozkie, hurrenez hurren, nortasunaren aldeko politika berriak eta emantzipazioaren aldeko borroak.

- Emantzipazioaren aldeko politikek tradizioaren eta hierarkien mugak eta ezberdintasunak deuseztatu nahi dituzte eta boterean parte hartzeko eta bizitzarako mota guztietako baliabideen banaketa ekitatiboa nahi dute.
- Politika berriek norberaren burukategorizazioak bideratutako nortasun erreflexibo eta askea ahalbideratzen duten egoerak eta baldintzak pertsona guztiei helarazi nahiko lizkiekete. “Bizitza-estilo libreen” eta “ni-aren egitasmu erreflexiboaren” politikak dira.

Autokategorizazioa modernitatearen nortasun-arau nagusia izanda ere, gizar-

teratzean heterokategorizazioak mugatu egiten du hautamena. Gizarte-esparru batzuetan ez dago aukeratzetik, nahiz diskurtso-egitura nagusiak nortasuna aukera gisa aurkeztu. Diskurtso-egiturak berak batzuen aukeramena segurtatu egiten du, beste askorena erabat mugatuz.

Askorentzat, modernitate osoan zehar ez da aukerarik egon. Mendebaldeko gizarte-talde boteretsuak bere proiektua, modernizazioa, aurrera eramanez ahal izateko mundu eta esparru ez modernoak behar ditu; gizabanako batzuek beren burua “gizaki huts eta osoa” irudika dezaten, beste asko gizarte eta talde-nortasun bati erabat josita dago<sup>15</sup>.

Norgintzari emandako atal hau bukatzeko, Castoriadis-en hitzak (1998) ekarri nahi ditut, oso argigarriak baitira:

Desde hace siglos, el Occidente moderno está animado por dos significaciones imaginarias sociales totalmente opuestas, aunque se han contaminado recíprocamente: el proyecto de autonomía individual y colectiva, la lucha por la emancipación del ser humano, tanto intelectual y espiritual como efectiva en la realidad; y el proyecto capitalista, demencial, de expansión ilimitada de un seudodominio seudorracional que desde hace mucho tiempo ha dejado de concernir exclusivamente a las fuerzas productivas y a la economía para convertirse en un proyecto global de un dominio total de lo físico, lo biológico, lo social y lo cultural.

Hitz horiek hobeto ulertzeko Castoriadisek berak “individualismo postmodernoari” egindako kritika atxiki behar dugu. Gaur indartzen ari den norgintza eredua, norbanakotasun normatiboa, urrun dago “autonomia-proiektutik”: konformismoa da nagusi, ez individualismoa. Gaur, mendebaldeko norbanakoa, kapitalismo berriaren esanetara, dirua eginez, kontsumituz eta gozatuz bizi nahi duen txotxongilo hutsa da. Gaur norbanakotasuna *collage* bat, nahaste-borraste bat baino ez da. Subjektua bere buruari jarraitu beharretik ere askatu egin da. Kontsumoa da lege nagusia: aukeratu, erabili eta bota. Horretan omen datza norbait izatea gaur egun.

Hala ere, gogora dezagun “autonomia-proiektuak” ere irauen dirauela, Giddens-en “*self politics*” direlakoetan edo Touraine-k (1999), Taylor-ek (1992) eta bestek jorratu dituzten “kultura-eskubideak” edo “errekonozimenduaren politikak” defendatzen dituzten mugimendu berriak.

Izan ere, heteronomiari aurre egiteko nork bere buruaren eragintzaren nagusitasuna defendatu behar omen du. Aukeran, zer-nolako autonomia, nortasuna eta hiritartasuna atera ahal da kontsumo- eta merkatu-mundutik? Horixe da galdera, eta nortasunaren arazoa eta kultura bertan ditugu.

---

15. Nik baino hobeto azaldu du Bourdieu-k: «la unificación cultural y lingüística va unida a la imposición de la lengua y cultura dominante como legítimas, y a la relegación de todas las demás a la indignidad (...) la universalización del acceso a los medios de cumplirlas, favorece a la vez la monopolización de lo universal por unos pocos y a la desposesión de todos los demás así mutilados, en cierto modo, en su humanidad (...) el estado ejerce un verdadero poder creador, casi divino (y muchas luchas aparentemente dirigidas contra él, le reconocen de hecho este poder reclamándole que autorice una categoría de agentes determinados —las mujeres, los homosexuales— a ser oficialmente, es decir, pública y universalmente, lo que por el momento sólo es para sí misma» (1997, 115).



## 5. Euskal kulturgintzaren zereginez eta jardueraz

Euskal kulturgintzaren oinarrian eskaera politiko bat ikus daiteke. Nortasun homogenea eta nolabait “garbia”, purua edo hutsa, eratzeko asmoa. Hori, egia esan, nortasun guztien moldea izan da modernitatean: estatu-nazioak hala irudikatu zuen herria lehenago, eta gizartea geroago. Eta horrela irudikatu ziren giza nortasunak zientzietan: bai talde-nortasuna, bai norberaren nortasuna.

Esanak esan, eskaera horren jatorri politiko eta modernoa hartu behar dugu kontuan. Laburtuta honela eman daiteke: norbanakoa / herria / estatua, eta hiruron arteko lotura, kultura. Estatua herri edo gizarte baten estatua izango da gizarte horren ordezkaria den neurrian, eta ordezkaritza kultura-loturan oinarrituko da. Eta norbanakoaren herrikidetasuna (eta ondorioz, hiritartasuna edo herritartasuna) kulturaren bidez zehaztuko da.

Hauxe da Gellner-en tesi ezaguna. Nork bere buruaren estimua kulturkide-tasunetik lortuko du, besteak beste, kulturkide-tasunak estatuaren oniritzia ekar dezakeelako. Kultura hori, jakina, estatuarena denean, bestela, norberaren kultura (hizkuntza, bizimodua eta abar) nazioaren kultura ez denean kultura norbere buruaren gutxiespenaren iturri bilakatuko da.

Naziogintzari emandako erantzunetako bat estatu gabeko kulturen politizazioa da: hizkuntza, bizimodua, erakundeak, zenbait sinbolo eta abar nazio baten izaeraren ezaugarri eta adierazpide gisa hartu eta “nazio berri” horri egokitutako estatua eskatzea. Horixe da gaur egungo euskal kulturaren jatorria. Euskal kulturaz uste eta pentsatzen dugunak holako prozesu batean du sorburu.

Baina “nortasun-eskaera” ez da euskal kulturaren alderdi eta osagai bakarra. Azken finean, euskaldunok edo euskal herritarrok bizi, bizi gara eta bizi izate horretan hainbat adierazpide biziartzten dugu.

Kultura-dinamketan aurrez aurre jar ditzakegu bizitasun etnolinguistikoa<sup>16</sup> eta nortasun-eskaera.

Nortasun-eskaera bizitasuna galtzen den neurrian agertzen omen da: bizi-bizirik dirauen bitartean kultura, hizkuntza eta bestelako “nortasun-bideak” bizi egiten dira besterik gabe; galbidean daudenean, aldiz, nortasun hori biziberritzeko eskaerak ager daitezke. Ez ditugu nahastu behar bizitasuna eta biziberritzeko eskaera: azkena indar handikoa izan daiteke eta aurrekoa erabat ahula. Horixe dela gaur egun dugun egoera uste dut nik. Baina ezin da ukatu kultura bizi dugula eta kulturak bizi gaituela. Kontua da, zein eta nolako kultura den. Eskatzen dugun kultura hori da bizi gaituena?

Nire ustez, ez. Eskatzen dugun kultura hori egitasmo- eta borroka-gai politikoa izan daiteke, hau da, gizarte edo giza elkarte jakin bat eratzeko “nortasun-bidea.” Eta, egia esan, jendeak “euskal kultura” eskatu egiten du: eskoletan hizkuntza-ereduen bitartez, adibidez, edota gaur “masibo” bihurtu diren ikuskizunen bidez


---

16. Hizkuntza-taldeari dagokiona, baina “taldea” singularrean okerbide izan daiteke, izan ere, Euskal Herria pluralean esan da beti: euskal herriak. Garbi dago hizkuntza-eremuan norainoko “askotasuna” izan dugun.

(Durangoko azoka, Ibilaldiak eta halakoak, bertso-txapelketak...).

Ikuskizun eta, oro har, kultura-jarduera horiek askotan ez dute zerikusirik eguneroko edo inguruko kultura-jarduerekin. Berrito diot: biziberritu nahi duguna ez da bizirik dena, bizirik nahi duguna eta gu (geure burua) izateko erabili nahi/behar duguna baizik.

Hori ez da eskizofrenia, batzuek hala esan arren. Modernitate osteko edo modernitate goien honetako bizimodu arrunta da, are gehiago politika-arloan. Aniztasuna, kultura- eta nortasun-askotasuna, ez da soilik “asko” elkarren ondoan egotea: asko norberaren taldean eta norberaren baitan egotea baizik.



Arazoa hauxe da: kultura modernitatean nortasun politikoari lotuta egon da. Euskal kultura ere modernizazioaren eraginpean sortutako “diskurtso politiko” baten emaitza da. Ez zuen lortuko erabateko nagusitasuna, baina onartu egin behar da “euskal kultura” elkargo baten kultura garbia zela esaten zuen diskurtsoa diskurtso hegemoniko bihurtu zela. Hortik nazio-kultura izatera igarotzeko gutxi behar zuen.

Beraz, “geure kultura” izan dugu: hizkuntza, azturak, izaera, folklorea, arkitektura, artea, literatura, musika... denetarik zuen herri-kultura eta modernizatuta nazio-kultura modernoa izatera ailegatu bide dena. Hau da, nolabait, “euskal kultura-kapitala”: euskalduna nor den esaten diguna, euskal kultura zer den esaten diguna, Euskal Herria zer den esaten diguna.

Inork ez du kapital osoa bere egiten, baina denon ondarea da eta denok erabil dezakegu geure burua irudikatzeko (batzuetan “gutarrak” ez direnetatik bereizteko, bestetan “gutarrak” direnekin identifikatzeko).

Kontua da diskurtsoa noraino den birtuala eta noraino den zuzena, noraino “IDENTIFIKAZIO KULTURALERAKO” baliabide hutsa (eta gogoan izan identifikazio kulturalaren eginkizun nagusia politikoa dela) eta noraino “BIZITZA KULTURALERAKO” baliabidea?

Bizitzaren gorabeheren arabera behar da diskurtsoa berritu, edo, alderantziz, diskurtsoak dioen bezala bizitzen saiatu behar gara.

Baina zein da “diskurtso” hori? Museoan gorderik dugun “euskal kultura tradizionala” bada, garbi dago bata bestetik gero eta urrunago daudela diskurtsoa eta

bizitza. Diskurtsoa nortasun-erritualetan egiten duguna bada, euskal nortasuna gure bizitzaren alde edo osagai bat besterik ez dela esan beharko dugu. Nire ustez, euskal kultura-kapitala eta nortasun-kapitala etengabe berritu behar ditugu, zabalduz eta kutsatuz. “Euskal kultura-gaiak” kontsumitzen ditugunean eusten diogu euskal nortasunari. Eta kontsumo horiek “erritualetatik” kanpo egin daitezke, muga inoiz oso argia ez bada ere. “Geure” kulturaren bizitasuna merkatura, nortasun-gaien kontsumora eraman dezakegu. Adibideak baditugu: Kepa Junkeraren musika izan daiteke bat, baina labeldun produktuak ere hortxe dabilta edota “izenak” asmatzen eta hedatzen izan dugun trebezia.

Jakina, kasu horietan “kontsumitzailea” eta sortzailea hibridoak dira: euskal kultura ez da euren bizitza osoa betetzen duen kultura bakarra, edo norgintza bakarra. Agian hegemonikoa izango da, agian, nagusia, baina nekez bakarra.

Hibridazio hori ez da “kultura-gaiarena”, baizik eta kultura-eragileena eta oro har jendearena.

Kultura-gaien hibridazioak “diskurtsoari” kalte egin diezaiokeela esan da askotan. Hau da, hibridazioak kalte egingo lioke euskal kultura omen den “molde jakinari”, eta kultura eta nortasun argia eta zehatza zegoen tokian nortasun nahasia, mugagabea eta ezezaguna agertuko litzaiguke.

Erazago onartzen da leku guztietatik inguratzen gaituen pertsonen hibridazio kulturala. Esaterako, euskararen aldeko manifestazio batera joanez gero, nire inguruan mota guztietako jendea ikusiko dut: oso bestelakoak diren tradizioetan asmatutako jantziak, batzuk “tradizioak” apurtzeko gogoz eginda (hau da, modernitatearen mito nagusiarri jarraikiz: berritasunaren mitoa, *ex nihilo* sortutakoaren mitoa). Telefono mugikorrek erabiltzen ikusiko ditut, zer eta mundu zabaleko industria- eta merkatu-sareetan ekoitzi diren teknologiak erabiltzen. Manifestazio ostean, paparrean euren nortasun-euskarririk nagusienaren aldeko pegatina dutela, jateke txinatar batera joan daitezke afaltzera edo Estatu Batuetatik datorren azken heroiaren filma ikustera. Bitartean zer edo zer har daiteke taberna batean, telebistan Espainiako azken saio arrakastatsua ikusgai delarik, eta ondoan afrikar saltzaile bat...

Hori guztia naturala iruditzen zaigu, horretara egokitzeko eta ohitzeko denbora izan dugulako, berritasun horien agerpena gure bizimoduaren erritmoa bera delako.

Ez gaitu harritzen darabilgun arropa erabiltzeak eta badakigu datorren urtean bestelakoa erabiliko dugula (joerak izaten ditugu, eroso ibiltzeko edo, baina modan egotea gizarte-beharrak ere bada eta inoiz sakrifizio bat edo beste egiten dugu behar hori asetzeko). Jantzi tradizionalak galtzen doaz, galtze horrek inor minduko du? Munduko hainbat lekutan jantziak nortasun-gai behinenak izan dira; ez da gure kasua. Esaterako, azken berrehun urteko jantzirik bereizgarriena, txapela, galtzen ari da. Baina topatu diogu lekua: uniformeetan, jaietan, dantzetan, museoetan... Hau da, bizitzatik bidali badugu ere, norgintza-jarduera berezietan, nortasuna indartzeko baliatzen ditugun jardueretan badu lekurik.

Antzeko zerbait esan daiteke janariaz. xx. mendearen hasierako jakintza gastronomikoa gizarte-ondarea zen (andreena batik bat). Orain nork daki gure amamek zekiten beste jaki eta beste janari prestatzen? Ez, dagoeneko jakintza hori ez da gizarte-jakintza. Jakintza berezitu bihurtu da, izan ere, hainbat urte eman behar dira ikasten erakunde “arautu” batean. Gutxik ikasi du bere sukaldean janariak prestatzen. Gaur egun, izen handiko sukaldariek euskal sukaldaritzaren izenean, sukaldaritza berritu eta asmatu egin dezakete eta herriari, jendeari, telebistan erakutsi eta irakatsi zelan aritu sukaldean. Horixe da lehenago aipatu dudana hibridazioa: Zer kultura mota da hori? Herrikoa? Popularra? Elitista? Masena? Tradizionala? Modernoa? Zein da euskaldunen sukaldaritza? Egin eta jaten duguna? Euskal museo gastronomikoa? Sukaldari ospetsu adituek egiten dutena? Euskal Herriko jatetxeetan eskaintzen ditutena? Guztiak?

Hitz gutxitan, inoiz “euskal nortasuna” mugatzen eta bereizten zuen euskal kapital kulturala izan bada, benetan kapitala izan zedin, berezko balioa izan zezan, kultura jakingarria, ezaguterraza, zehatz mugatua eta jatorra behar zuen izan. Hainbat gauza asmatuz, baserri-munduko hainbat gai hartuz eta hainbat berrikuntzaz lortu zen hori, neurri batean. Gaur egun, gutxi asko, ideia bat izan dezakegu euskal kultura zer den definitzeko. Hala ere, prozesua ez da gelditu eta ez da inoiz geldituko.

Euskal nortasuna egiten duen kapital kulturala ez da behin betikoa. Borroka egin behar du bere “izana” ez galtzeko, izaten jarraitzeko. Eta izateari eusteko modurik onena ez da hain zuzen ere, izandakoari euste hutsa; esan nahi baita, kapital kultural horren gizarte-balioa negoziatzen jarraitu behar denez, diskurtso-mailan (maiz sinbolo huts bihurtuta) geratu diren gai zaharrei eustea ez da biderik egokiena bizitzan baliagarria izan behar duen kapitala lortzeko.

Non dago gure kultura? Diskurtsoan bakarrik? Ala eguneroko bizitzan aurkitu dugu, bizigai eta bizigarri?

Hemen dugu euskal nortasun-kapitalaren eta euskal herritarren nortasun-kapitalaren arteko aldea. Lehenengoa, esan bezala, kultura-jardueretako eta kultura-kontsumoetako diskurtso bat izanik ere, euskaltzaleek eta abertzaleek lehentasuna ematen diote, euskalduntasuna bereizten duelakoan, eta horrexegatik politika kulturalaren helburua eta objektua izaten da. Besteak, beste kultura-jarduerak eta kontsumoak (merkatuarenak, masa-hedabideenak, beste talde-kulturak eta abar), euskal herritarren nortasun-kapitalaren osagaiak dira, baina nortasunaren hierarkia politiko-publikoan, edo beheko mailetan daude, edo ez dute nortasun-baliorik. Adibidez, zein lekutan dago espazio publikoan nortasun eta kultura gailegoa? Eta zein da autoen nortasun-balio publiko-politikoa? (eta autoek nortasun-balio handia dute, baina ez nortasun politiko hegemonikoa zein den erabakitzeko, horretarako neutroak omen dira).

Dena den, lehenago gaira itzultzeko, errazago onartuko dugu euskal herritarren (guztien eta norberaren) hibridazioa eta hiritarren nortasun-kapitalaren konplexutasuna, euskal nortasunaren kapitalaren hibridazioa baino, kapital hori nahasiz gero, balioa deuseztatuko dela uste baita, kapitalaren baliorik handiena berezia eta bereizgarria izatea baita (Bourdieu-k bere *La Distinction* lanean erakutsi zuen moduan)<sup>17</sup>. Kapitala gizarte-erakundeetan, norbanakoetan eta gauza edo gaietan

objektiba daiteke. Eragileek kapitalaren balioa bermatu eta iraunarazi ahal duten bitartean gaiak, kultura- eta nortasun-gaiak, kapitalaren gauzatze materiala dira: mozkinak. Eta paradoxikoa da, hain zuzen ere, gaiak duten “objektibatze” indarra. Indar horrek itsu gaitzake.

Hibridazioa bizitasunetik (bizi-indarretik) onar daiteke eta onartu behar da. Bestela, euskal nortasun-kapitalaren eta euskal herritarren kapitalen arteko aldea gero eta handiagoa izango da. Jendeak gero eta arazo gehiago izango du bere burua tradizioetik eta modernitateetik datorkigun kapital horren bitartez irudikatze eta bereizteko. Euskal kapital kulturala berritzen dugunean eta kapital hori totalizatzearekin tematzen ez garenean, ordea, bien arteko aldea gutxitzen dugu.

Nola egin hori, ordea? Egin daiteke? Bai, aldaketei, hibridazioari edo berrikuntzei beldurrik gabe harrera eginez gero, eta beldurra uxatzeko, “euskal nortasunari eta kapital kulturalari” zerk ematen dion bere bereizitasuna eta bere izaera jakin behar dugu<sup>18</sup>.

Hasieran ikusi dugunez, jendearen ustez bi dira “bereizgarri” horiek: euskara eta bertakotasuna. Biei eutsiz, neurri eta modu batean edo bestean, euskal kulturaren eta nortasunaren eremuan jokatzeko ari gara eta eremu horren balioa, kapitala, indartzen ari gara. Jendearen aburuz, bi “bereizgarri” horiek edozein osagai eman diezaioke euskalduntasuna, are gehiago, ezarritako eta ezagun den euskal kapitalaren baitan ainguratzen bada delako osagai hori.

Beraz, bereizgarri horiek, kapital horren erdiguneari eutsiz, ingurune berrietara egokitzeko giltzarriak dira. Baina kontuan hartu behar da ez dela nahikoa “giltzarriak” zeintzuk diren jakitea, bizitasunetik egin behar dela kulturagintza. Bizitzeko ez badu balio (eta bizitza ez da merkatua soilik, baina merkatua ere bada) ez du balio. Kulturagintza horren balio bakarra “identifikazioa” izatea ez da nahikoa, hori, nolabait, kulturagintza bizigarri bati darion zerbait izan daiteke, baina ez bere eginkizun zuzen bakarra.

Giltzarriak iraupena eta jarraipena irudikatze eta gauzatzeko behar ditugu. Esan dudan bezala, edozein nortasun irudizkoa da, gizakiok sortutako irudikapen bat. Atzera begira esan dezakegu “gu” hori noiz sortu zen eta zein izan zen bere garapena, “gu” hori irudien bidez, sinbolo eta erritualen bidez gauzatzen dugulako, giza eraikuntza hutsa delako.

---

17. Euskal nortasunaren kapitala monologikoa eta “exklusibista” dela entzun ohi dugu kritika egin nahian. Baina, edozein nortasun-kapitalek bereizgarriak behar ditu nortasun-balioa izan dezan. Hala eta guztiz ere, “bereizgarritasuna” eta “nagusitasuna” diskurtso-egoerak dira, gizarte-dinamiketako une bat. Eta euskal nortasun kapitalaren diskurtsoa ez da ez erabat bereizgarri, ez erabat nagusi: errealitatea definitzeko borrokan, gatazkan eta eraldaketan murgilduta dauden talde eta eragile ezberdinen emaitza mugagabea da. Euskal nortasuna, beraz, edonorena eta edonolokoa, ez da monologikoa, ez materia bakarrekoa, ezta forma bakarrekoa ere. Kultura-kapital guztiak bezala, dialogikoa eta multilogikoa izan arren onartu egin behar dugu, menpeko kulturetan gertatu ohi den bezala, “araztea” eta “bereiztea” euskalgintzaren temak izan dira.

18. «Quizás, prácticas como la fabricación de cañerías no sean culturales porque no son prácticas de significación...» (Eagleton, 2001: 57). Jakina, kultura-kapital baten arabera jarduerak oso balioetsuak izan daitezke. Hori da bereizgarritasuna, ez soilik, besteetatik bereiztea, nortasun- eta kultura-balioa modu berezi batean antolatzea. S. Hall-en ustez (1982), kultura “bizi jarduerak” edo “ideologia praktikoak” dira, beraien bitartez gizarte, klase edo talde batek bere izatea zentzuz ulertu eta bizi ahal du.

Modernitatean estatuak “gu” politikoaren irudikapenaren bidez bere boterea eta eginkizunak legitimatu ditu. “Gu” horren batasunak eta berdintasunak batasun kulturala izan behar zuen, arlo politikotik kanpo zegoen batasun sortzailea.

Horrela irudikatu dira, kontrara bada ere, euskal nortasuna eta euskal kultura. Diskurtso horretan hartu dute euren balioa euskal kulturaren eta nortasunaren kapitalek. Horrexegatik, ahalegin asko eta asko egin dira kapital hori arazten, garbitzen eta bereizten. Berezko balioa izan zezan, jendeak erabili ahal zezan bere nortasun politikoa ulertzeko eta bere nortasun kulturala eratzeko.

Modernitatean, beraz, borroka kulturalak borroka politiko hutsak izan dira eta helburu jakin bat izan dute: nagusitasun osoa arlo politikoan eta totalizazioa gizartean, nortasun publikoa izateko legitimitate osoa. Naziogintzaren eta modernizazioaren eginkizun nagusietakoa berdintasun hori lortzea izan da. Baina gauzak ulertzeko modua aski aldatu dela onartu behar da. Hegemonia lortzerik dagoen oso zalantzakoa da, totalizazioak merezi duen ere bai.

Nire ustez, nortasun-borroketan eta politiketan jarraitu behar dugu, nahi eta nahi ez hori izango da kultura-nortasun guztien erronka: izaten jarraitzeko aukera osoa behar izango dute. Beraz, “berezitasunaren” edo “desberdintasunaren” alde lan egiteari eutsi beharko diote euskaldunek, euskaldun izatekotan; baina, hegemonia eta totalizazio modernoekin gehiegi tematatu barik. Izan ere, berez, alde aurretik galdutako borroka antzua da, eta hori baino arrazoi garrantzitsuagoa da aldarrikatu behar den “balioari” eta “bizitasunari” kalte egiten diola tematze horrek.

Honek guztiak ez du esan nahi euskaldunok ez dugula legitimitaterik “kultura” eta “nortasuna” defenda eta heda dezatela eskatzeko erakundeei, gizarte batek bere burua irudikatu eta gauzatu behar baitu, bereak egin ez dezan. Eta irudikatze-lan horretan ezin da hutsetik abiatu. Abertzaletasun zibikoa eta etnikoa nahastuta daude lan horretan; eta abertzaletasun-mota guztiek eusten diote norgintza-eredu bati.

Abertzaletasunak, berriz, euskal gizartean izan den eta izango den aniztasun kulturala onartu behar du, betiere gizarte-elkartasuna eta norberaren gizarte-erantzukizuna lortze aldera<sup>19</sup>.

Euskal gizartearen osagai eta lokarri sinbolikoak kulturatik kanpo bilatzen hasiz gero, zein lekutan utzi behar ditugu euskara eta euskal kulturagintza? Alderantziz ere ikus daiteke: euskal abertzaletasunak euts diezaioke nazio edo herri kulturaren balio sinbolikoari, eta Euskal Herriko gizartea batzeari eta elkartzeari uko egin, euskaldun “azpizarte” bat eratzeko. Baina horrek onik egingo dio euskarari?

---

19. Eskubideak eta beharrak onartzeaz ari naiz. Gizarte-kontratu modernoak “nazioarena” izan den bitartean, esparru postmodernoetan gizarte-kontratuak gizabanakoarekin edota talde eta gizarte-eragileekin negoziatu beharra omen dago... Eta euskaldunok badugu horren berri: estatuak gure hizkuntza-eskubideak ez gordetzea norberarekiko kontratu “psikosoziala” apurtzeko arrazoia izan da behin baino gehiagotan. Estatu horrekiko lotura eta erantzukizuna apurtzeko... Gizarte-elkartasuna ez da homogenitatean oinarritu behar, gizarte-kohesioa aniztasunaren “protagonistekiko” begirune eta guztion partaidetzan zein aukera-berdintasunean oinarritu behar da.

Orain arte, modernitatean nagusi izan den diskurtso politikoa erabili da euskararen sustapen-lanean: nazio-kulturaren (eta dagokion norgintza: nazio-norbana-koaren moldea). Gaur, ordea, naziogintza (baina beste termino hau maizago: gizartegintza) eta kultura urruntzen diren bideetatik abiatu omen dira.

Nire ustez, politika kulturalak ezin dira garatu “bereizkuntza hutsari” begira. Gizarte-eragileak eta hiritar guztiak “hibridoak” dira dagoeneko, beren bizimoduak eta bizi-estiloak era askotakoak dira, kultura baten bizi-iraupena ez da “kapital (egitura, erakunde, gauza, gai eta sinbolo multzo) zurrun” baten iraupena; eta, esan bezala, oraingo lehia nahastea da, berritzea, kanpotik ekartzea eta kanpora bidaltzea, eta euskal kulturaren kasuan hori guztia “bertotik” eta “euskarari lotuta” egin behar da. Nire ustez, honako hau eskatu behar diogu politika kulturalari: bertan aritzen diren eragileei laguntzea eta euskara edo euskarari lotutakoa bultzatzea.

Helburua, nortasuna bizi-irautea, kultura bizi-berritzea, jendeak erabilgai izan dezan eta bere nortasunaren eta kulturaren jarduera eta kontsumoetan baliagarri izan dezan.

## 6. Bukatzeko gogoeta

Garbi izan behar dugu zeintzuk diren “bereizgarriak”, hau da, euskal kultura eta nortasuna bereizi eta balioesten dituzten ezaugarriak, bereizgarri egiten duten osagaiak.

Gogoan izan, berezitasunari eusten (hau da, “nortasun” edo “zertasun” berezia izaten, nor edo zer izaten) eta nor edo zer horri balioa ematen jakin behar dugula. Beraz, berezi eta baliodun izaten jakin behar dugu.

- Berezitasunari dagokionez, nahikoa da bereizgarriak zeintzuk diren zehaztea eta horiek lantzea.
- Balioespenaren kasuan, aldiz, merkatuaren eta egoera soziopolitikoaren gorabeheretan murgilduta ibiliko gara. “Balioa” politikoa izan daiteke (hegemonia lortzeko ahalegina), baina merkatuan hainbat aukera eta kontsumo-gairen artean lehiatu beharra dago. Kontsumitzaileari “gustuko” gaia eskaini behar zaio, balio izango dion zerbait. Eta, aldi berean, “publikoa” sortu behar da: euskal kultura eta euskal nortasuna balioetsiko eta gozatuko duen jendea “hezi” behar da.

Kultura osotasun bat izan beharrean eta jendea osoki hartu beharrean, gaur egun kulturaren gaiak eta ekintzak hartu behar dira aintzat, eta bakoitzak nahi duena baliatzeko horiek guztiak prest daude. Baina, gai eta ekintza kultural horiek “kontsumitzeko” prest dagoen jendea ere hezi egin behar da.

Eragileek garbi baldin badute zeri eutsi behar zaion, nahastean eta sortzean ez dago inolako arriskurik kulturgintzan; eta berezitasuna eskaintzen bada, aukeraren bat topatuko da kultura-merkatuetan lehiatzeko (egoera txar-txarrean arituko direla jakinda).

Zeintzuk dira “bereizgarri gutxi baina ezinbesteko horiek”?

Jendeari eta kultura-eragileei kasu eginez gero, EUSKARA eta BERTAKOTA-SUNA: euskararekin nolabaiteko lotura izatea, kultura-gaiak eta eragileak bertokoak izatea edo berton aritzea.

Bi osagai horiek, batera edo bakoitzak bere aldetik, “euskal kultura” berezi egiten dute eta “nortasun / zertasuna” ematen diote (zerbait izanarazten dute).

Horiei eutsiz, kulturgintza erakargarria eta baliagarria egiten bada, euskal kulturak iraungo du larriminik gabe, agoniarik gabe. Gaur hainbat eremutan horrela da: sukaldaritzan, musikan, izenetan...

Nik proposamen moduan bi joera indartzeko aholkatuko nuke: berton sortu eta egiten diren kultura-dinamikak, direnak direla, eta euskaraz edo euskarari lotuak direnak indartu. Kultura-eragile eraginkorrak eta kultura-gai interesgarriak behar dira.

Ez da lortuko hegemonia. Norberaren eta elkargoaren nortasuna eraikitzeke baliabide bat (beste askoren artean) eskainiko zaio jendeari. Heziz gero, jendeak gustura hartuko du eskaintza, eta, neurri batean, nortasunaren muin afektiboa izan daiteke, baina aukera bat izango da, halabeharrez. Politika kultural hau politika kulturalari agur esateko bidea da, gizarte osoaren kultura politikoari atek zabaltzeko modua; eta orain arteko normalizazioaren taxuketa edo egoera normalaren estandarra, estatu-kulturen eta nortasunen neurrira taxutua, aldatzeko modua.

Euskal kulturatik “nortasun-efektuak” dituzten kultura-jarduera bizigarrietara igaro beharko genuke, “euskal” hori mugatzeko ahalik eta adostuen dauden be-reizgarriak erabiliz. Eta euskalduna izateaz kezkatuta baino gehiago, euskaldun bi-lakatze zabal eta sortzaileaz kezkatuta garatu beharko genuke euskal kulturgintza. Jakina, uzten diguten neurrian.

## Bibliografia

- Amezaga, J. (2000): “Media and identity in the Basque Country”, Working Papers in 1 International Symposium on Basque Cultural Studies, Londres.
- Apodaka, E. (2000a): “Euskal Nortasuna eta norgintza modernoa: Euskal nortasun moderno, norgintza politikoaren emari gisa”, *Inguruak*, 2000ko martxoa, **26**, 149-175.
- , (2000b): “Euskal Nortasuna eta norgintza modernoa. Euskal nortasuna gaur: herria eta hizkuntza”, *Inguruak*, 2000ko abendua, **28**, 125-152.
- Atxaga, B. (1995): *Alfabeto sobre la cultura vasca*, Orain, Hernani.
- Barandiaran, X. (2002): *Gazteak eta Politika*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.
- Beck, Giddens eta Lasch, (1997): *Modernización reflexiva*, Alianza, Madril.
- Bidart, P. (1986): «Peru Abarca: espace imaginaire et “paradigme perdu”» in *La production sociale des espaces*, Baiona.
- Bourdieu, P. (1980): *Razones prácticas*, Anagrama, Bartzelona.
- , (1988): *La Distinción. Criterios y Bases Sociales del Gusto*, Taurus, Madril.
- , (1997): *Razones prácticas. Sobre la Teoría de la Acción*, Anagrama, Bartzelona.
- Castoriadis (1998): *El ascenso de la insignificancia*, Cátedra, Madril.



- Dumont, L. (1987): *Ensayos sobre el individualismo*, Alianza, Madrid.
- Eagleton, T. (2001): *La idea de Cultura. Una mirada sobre los conflictos culturales*, Paidós, Bartzelona.
- Elías, N. (1990): *La sociedad de los individuos*, Península, Bartzelona.
- Elster, J. (1986): *The Multiple Self*, CUP, Londres.
- Epstein, A. L. (1978): *Ethos and Identity*, Tavistock, Londres.
- Foucault, M. (1984): «Pourquoi étudier le pouvoir: la question du sujet» in Dreyfus & Rabinow (arg.) *M. Foucault: un parcours philosophique*, Gallimard, Paris.
- , (1990): *Tecnologías del Yo*, Paidós, Bartzelona.
- García Canclini, N. (1989): *Culturas híbridas. Estrategias para entrar y salir de la modernidad*, Paidós, 2001eko edizio gaurkotua, Buenos Aires.
- , (1995): *Consumidores y ciudadanos: Conflictos multiculturales de globalización*, Grijalbo, Mexiko.
- García Fernández, I. (1995): “Identificación etnosocial en la C.A.V. y en la C.A.N.” in M. Tabernero (bil.), *Psicología Social de la educación y de la cultura, ocio y turismo*, Eudema, Salamanka.
- Gergen, K. J. (1987): “The social construction of selves” in K. Yardley & T. Honess (arg.) *Self and Identity: Psychosocial Perspectives*, J. New York: Wiley & Sons.
- , (1992): *El yo saturado. Dilemas de identidad en el mundo contemporáneo*, Paidós, Bartzelona.
- Gerth, H. & Wright Mills, C.: *Carácter y estructura social*, Paidós, Buenos Aires.
- Giddens (1991): *Modernity and Self-Identity*, Stanford University Press, Sranford.
- González Ajona, T. (1995): “Identidad y cultura en el País Vasco. Estudio cuantitativo y cualitativo”, in M. Tabernero (bil.), *Psicología Social de la educación y de la cultura, ocio y turismo*, Eudema, Salamanka.
- Guzmán, C. (1996): *Medios de comunicación y poder*, Univ. Central de Venezuela.
- Hall, S. (1982): “Culture and the State” in Keynes, *The State and Popular Culture*, Open University.
- Jameson, F. (1984): “Postmodernism or the Cultural Logic of Late Capitalism”, *New Left Review* **146**, 53-92.
- Juaristi, J. (1988): *El linaje de Aitor. Los vascos como invención literaria*, Taurus, Madrid.
- Juaristi, P. (2000): “La situación de la cultura vasca: instituciones y ámbitos de actividad cultural”, *Inguruak*, Bilbao.
- Kortazar J. (1990): *Literatura Vasca*, Etor, Donostia.
- Lechner (1988): *Cultura, política y democratización*, Flacso, Clacso/ICI, Santiago.
- Lifton, R. J. (1993): *The Protean Self. Human Resilience in a Age of Fragmentation*, The University of Chicogo Press, Chicago.
- Martín-Barbero, J. (1991): “Dinámicas Urbanas de la Cultura”, *Gaceta de Colcultura* **12**, Instituto Colombiano de Cultura.
- Mead (1934): *Mind, Self and Society*, University of Chicago Press, Chicago.
- Nisbet (1975): *El vínculo social*, Vicens-Vives, Bartzelona.
- Said, E. (1993): *Cultura e imperialismo*, Anagrama, Bartzelona.
- Sampson, E. E. (1993): “Identity Politics. Challenges to Psychologys Understanding” in *American Psychologist* **48**.
- Sánchez-Prieto (1993): *El imaginario vasco. Representación de una conciencia histórica, nacional y política en el escenario europeo, 1833-1876*, Eiunsa, Bartzelona.
- Stryker, S. (1987): “Identity Theory: Developments and Extensions”, in K. Yardley & T. Honess (arg.) *Self and Identity: Psychosocial Perspectives*, J. New York: Wiley & Sons.
- Tajfel, H. (1981): *Human Group and Social Categories*, CUP, Cambridge.
- Taylor, Ch. (1992): *El multiculturalismo y la “política del reconocimiento*, FCE, Mexiko.
- Touraine (1999): *¿Cómo salir del liberalismo?*, Paidós, Bartzelona.

- Turner, J.C. *et al.* (1990): *Redescubrir al grupo social. Una teoría de la categorización del yo*, Morata, Madrid.
- Williams, R. (1958): *Culture and Society*, Penguin Books, Londres.
- Zulaika (1996): *Del cromañón al carnaval: los vascos como museo antropológico*, Erein, Donostia.